

DATORRENA

Nuklearrik? Ez, eskerrik asko

AIORA ZABALA ➤ 3

AFRO-SOBIETARRAK:

Itsaso Beltzetik mundura
zabaldutako leinua ➤ 4

2025eko ekainaren 28a | XIX. urtea • 933. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



VORIGI
BITA,
AKTIBISTA
BAT
BILBON

ARRAZAKERIAREN
AURKAKO BORROKAK
AHOTS GAZTE ETA
INDARTSU BAT DU
BILBON. VORIGI BITA
DU IZENA ETA
HEZKUNTZA SISTEMAN
JARRIA DU BEGIRADA,
BIDEGABEKERIEKIN
AMAITZEKO GAKOA
DELA KOAN. ➤ 27

Arduraduna: Amagoia Mujika Telleria. **Erredakzioa:** Asier Aiestaran Iruretagoiena, Mikel Urdangarin Irastorza.

Argitaratzailea: Astero. **Lege Gordailua:** SS-77/07. **Helbidea:** Portuetxe 23-2a. 20018 Donostia. P.K.: 1099. Tel.: 943 31 69 99 / Faxe: 943 31 69 98. **e-posta:** info@gaur8.info. **Publizitatea:** Euskal Prensa. Tel.: 94 424 72 06.



Afro-sobietarrak, Itsaso Beltzetik mundura zabaldutako leinua 04

Ikusmira: Mexiko Hiria 07

Elkarrizketa: Leila Guerriero, idazle eta kazetaria 08

Migratzaileen euskararekiko jarrera ikertu dute Bortzirietan 12

Pantaila Txikian: Denboraren joana telesailen narrazioetan 15

Euskal Udalekuak, 50 urte haurren aisialdia euskaraz bustitzen 18

Elkarrizketa: Laida Lizarribar eta Nuria Barba, 'Gu Geok' plataformako kideak 22

In fraganti: Vorigi Bitia 27

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



SINADURAK:

03 **Aiora Zabala:** Nuklearrik? Ez, eskerrik asko

10 **Ula Iruretagoiena Busturia:** Hirigintza kooperatibismotik

11 **Iraitz Mateo Gogorza:** Kale giroa

20 **Fernando Trebol Unzue:** Garunaren oinarritzko babesa

21 **Iker Barandiaran:** Iluntasunetik babestu

25 **Amaia Ballesteros**

26 **Itzea Urkizu Arsuaga:** Hemendik aurrera gari

26 **Miren Azkarate Badiola:** 47. artikulua estoldak

30 **Nagore Barrena Oruechebarria:** Zaintzaren kapitalismoa



{ datorrena } **Aiora ZABALA**

Nuklearrik? Ez, eskerrik asko

Berriak maiz irakurriz gero, zaila da ezerk harritzea egunotan, titularrak sinestezinetik sinestezinagora doaz eta. Baina azken asteotan zerbaitek harritu nau. Erresuma Batuko gobernuak fisio nuklearretik ekoitzitako elektrizitatea bultzatzeko inbertsio berriak iragarri ditu. Txunditu nauena da jendearen aurkakotasun nabarmenaren eza.

Bultzada horretarako aitzakia energia trantsizioa da. Gobernu horrek energia berriztagarrientzako enpresa publiko berri baterako aurreikusitako 9.000 milioi euro ingurutik herena birbideratu berri du erreaktore nuklear modular txikiak egitera, berotegi efektuko isuririk ez dutela argudiatuta (funtzionamenduan; eraikitzean badituzte halako isuriak, ordea).

Birbideratutakoa adina gastatzen du, gutxi gorabehera, gobernu horrek, urtean, hondakin nuklearren kudeaketan. Energia Departamenduaren partidarik handiena da. Zergen puska itzela, gizartearentzat onurarik ez ekartzeko, iragane-tik oinordetutako zikinkeria kudeatzeko baizik. 1950eko hamarkadako hondakinak kudeatzen dabiltza oraindik. Inork ez daki oraindik zein instituziok bermatuko duen hondakin erradioaktibo berrien segurtasuna ehunka urte-tan. Ez naiz istripuen eta eraso zuzenen arriskuez arituko ere.

Askoren ustez, fisio nuklearra beharrezkoa da energia trantsiziorako, erregai fosilak ordezkatzeko. Ez, iturri berriztagarrietatik datorren elektrizitatea nuklearra baino merkeagoa da, gora doazen desgite kostuak kontuan hartu gabe ere. Bultzada horrek elektrizitatea garestituko du, eta etorkizuneko belaunaldi-
diei arazo astun eta erradioaktiboa utziko die. Energia berriztagarriak askoz malguagoak eta azkarragoak dira mar-txan jartzeko eta sare elektrikoari energia gehitzeko. Eta ez, energia berriztagarriak ez ziren izan itzalaldiaren zer-gatia.

Zergatik bultzada hori, beraz? Bi arrazoi datoz burura. Lehenengoa, ahalegin nuklear zibila areagotzea bat dator gerra-oldarrekin, iraganean bezala. Iraganean, fisio nuklearraren aldekoek ere sustatu zuten hura, elektrizitate iturri bikaina eta merkea zela argudiatuta. Garapen zibila erabili zen gaitasun militarra indartzeko eta hori frogatu izan da. Elektrizitatea merketzearena ez da frogatu. Klima larrialdia-

ren beste aro batean egonda ere, ezerk ez du adierazten kon-takizuna oso desberdina denik.

Bigarrena, etorkizuneko elektrizitate eskaera asko igoko delakoan biderkatu nahi da nuklearra. Iaz munduko ener-gia eskariaren igoera aurrekoetakoaren ia bikoitza izan zen. Arrazoi nabarmenak, besteak beste: datuen zerbitzariak eta adimen artifizia. Hortaz, nuklear berria ez litzateke erregai fosilen egungo eskaria ordezkatzeko, baizik eta teknologia digitalei eusteko, besteak beste. Mundu digitalaren hedape-narekin, energia gehiago behar da datuen zerbitzariak elika-tzeko; adibidez, hodeira igotzen dugun edozein bideo epe luzez gordetzeko edota AA txatetan galderak egiteko. Eta bi-tartean klima larrialdia moteldu gabe.

Batak zein besteak ez dute zerikusirik klima arintzeko ahaleginarekin. Gizartearen ahotan eta itxaropenean da-go-en klima ekintza bahitu egiten dute nuklearra bultzatze-ko inbertsio horiek. Klimarentzat dela esan, eta beste zer-baitentzat egin. NATOk zein erraz eskatu duen herrialdeen BPGaren %5 “defentsan” gastatzeko, Ameriketako Estatu Ba-

Klima larrialdia arintzeko aitzakiarekin
fisio nuklearra bultzatu nahi dute,
energia trantsizioa garestiagoa eta
arriskutsuagoa izango den arren. Beste
helburu batzuk daude atzean, ordea

tuek beren merkataritza-orriak orekatu nahi dituztelako, eta zenbat kostatzen den klima arintzeko behar den BPGa-ren %2 bideratzea.

Azken boladako albiste horiek XX. mendeko garapen nu-klearraren aurkako mugimendu eta argudio irmoak hau-tsen artetik ateratzen dituzte. 1970 eta 1980ko hamarkade-tako Lemoizko garapenak eta garaipenak gogoratzen ditu Iñaki Petxarromanek bere liburuan. Horren harira harre-manetan jarri zitzaidanean, bizirik edukitzeko oroimen ga-rrantzitsua zela sentitu nuen. Ahaztu behar ez dena, baina zeharo iraganekoa. Horretaz ez nago hain ziur gaur egun. Mugimendu bakezale antinuklearraren XXI. mendeko ber-tsioaz hausnartu beharko dugu. •

AFRO-SOBIETARRAK

Itsaso Beltzetik mundurantz zabaldutako leinu ezezaguna

📁 **ABKHAZIA** / Karlos ZURUTUZA

Emakume ikaragarria zen Nutsa Abash: ginekologia ikasitakoa, iraultzaile baten alaba, Bigarren Mundu Gerrako heroi baten arreba... Ez zen harritzekoa “Pravda” egunkariaren azalera iritsi izana. Aldizkaria Sobietar Batasuneko bazter guztietan banatzen zen, Ural mendietako bailara galduak barne. Haietako batean, Semyom Bobylevek ale bat eskuratu zuen. Nutsaren erretratuak aho bete hortz utzi zuen basozaina. Afrikar itxurako emakume hura sobietarra ote? Bobylevek gutun bat idatzi zion, hain izan zen handia bere lilura. Lau urtez eskutitzak trukatu ostean, Tbilisin (Georgia) elkartu eta, ia berehala, ezkondu egin ziren. Iragan mendeko 50eko hamarkadaren hasiera zen.

Nutsa 1927an sortua zen, Abkhazian, Itsas Beltzeko itsasertzean. Sobietar Batasunean hiru herrik baino ez zituzten afrikar jatorriko biztanleak, Kaukasoko errepublika ttipian hirurak.

Nutsa Medikuntzan lizentziatu da; Nutsak Maiatzaren Lehenaren martxarekin bat egin du; Nutsa kazetariekin hizketan, abeltegi kolektibo batean... Sputnik-en itzalak sobietar inperioaren gainean egin legez, Itsaso Beltzetik Ozeano Barera zabaldu zen afro-sobietarraren ospea. Bitartean, AEBetan, Rosa Parks izeneko emakume beltz batek uko egin zion autobuseko bere eserlekutik altxatzeari.

Nutsak zutabe bat idatzi zuen “Pravda” egunkarian (“Nire ahizparen defentsan”), AEBetako komunitate afro-amerikarraren aurkako errepresioa salatzeko. «Min han-

Rosa Parks-ek 1955ean autobuseko bere eserlekuari eutsi zionean, SESBetik ere elkartasuna eta babesa jaso zituen. Afro-sobietarrak ez ziren asko, baina propaganda arma eraginkor bilakatu zituen Moskuk. Euren istorioa, baina, garaipen diskurtso hutsak baino askoz aberatsagoa da.



dia ematen dit beltzak Ameriketara jasaten ari diren egoerak. Batetik, humanismoaren, internazionalismoaren eta proletalgoaren balioetan hazitakoa naiz; bestetik, Rosak nire azal kolore bera dauka», idatzi zuen abkhaziarrak. «Askatasuna Ameriketako beltzentzat!», bukatu zuen zutabea.

Berdintasuna oinarri zuen sobietar ereduak oihartzuna izan zuen hainbat afro-amerikar migratzaile ospetsuren artean. Claude McKay zen ezagunenetako bat. John Reed kazetari eta komunista militanteak gonbidatuta, McKay 1920an bertaratu zen Sobietar Batasunera, Leninek «beltzen auzia» mahai gainean jarri eta gutxira. Iritsi bezain pronto, Zinoviev, Bujarin eta beste buruzagi sobietar batzuekin, argazkian agertu zen McKay, Moskun hainbat sari eta aitortpen jaso ostean. AEBetara bueltan, Sobietar Batasuneko aurrerapen sozialak goretsi zituen bere artikuluetan, eta «sozialismoaren paradisia» bisitatzeraz animatu zituen bere «anai-arrebak».

«Propaganda dela esango dute batzuek, baina ez dit axola. Helburua zilegi da eta, beraz, harro nago propagandista izateaz», idatzi zuen. Urte batzuk geroago, ordea, Claude McKay antikomunista sutsu bilakatu zen, katolizismoa besarkatu ostean.

AEBetako herritar askorentzat, alabaina, Sobietar Batasunak erreferente izaten jarraitu zuen. 1973an, “The Afro-American” egunkariak hiru erreportajeko sorta bat argitaratu zuen. «Afrikarren azalaren kolorea ez da oztopo Sobietar Batasunean» izenburupean. Lily Golden zen protagonistetako bat. Mississippitik Sobietar Ba-



tasunera 1931n emigratutako bikote baten alaba zen Golden. Taxkenten jaiotakoa (egungo Uzbekistanen), tenislari bikaina izan zitekeen (Sobietar Batasuneko txapelketetan laugarren postua lortu zuen), baina Goldenek historia ikasketak hautatu zituen. Afrikako Ikasketetan espezializatu eta hainbat liburu argitaratu ondoren, Tanzaniako presidenteorde ohi batekin ezkondu zen. Bikotearen alaba, Yelena Khanga, sobietar telebistako lehen aurkezle beltza bilakatu zen. «Arraza guztietakoa naiz: afro-amerikarra, poloniarra, judua, indiarra... Baina odolez izan ezik, errusiar peto-pettoa naiz», bota zuen Goldenek, 2010ean hil baino lehen.

“The Afro-American”-eko kazetariak Nutsarekin ere hitz egin zuten. Abkhaziarrek berrogei urte zituen orduan, bai eta 15 eta 17 urteko bi alaba ere. Ordurako, Kubatik, Kongotik, Angolatik edota Libiatik iritsitako ikasle komunitate sendo bat zegoen Sobietar Batasunean. «Nutsak sobietar gazte askok zuten arazo bera zuen: ikasteko aukera gehiegi zeuden», idatzi zuen kazetariak, bai eta abkhaziarrek «guraso eta aitona-amonen arte-

Ondoko orrialdeko argazkietan, goian Nutsa (ezkerrean) eta bere lehengusinak, Shamil eta Tsiba Txanba, 1936an; behean, sobietar garaiko aztarnak, Abkhazian, oraindik ere nonahi aurki daitezkeenak. Lerro hauen gainean, Abkhaziako Independentzia Gerraren oroigarrietako bat, eta Viatxeslav Txirikba, Abkhaziako Atzerri ministro ohia eta antropologoa, Sukhum hiriburuan. ABASH SENDIAREN ARTXIBOA - Karlos ZURUTUZA

ko liskar zaharretatik guztiz aske» burutu zituela bere ikasketak.

Kaukasoko txetxeniarrak eta osetiarrak, besteak beste, Siberia edo Asia Erdialdera bidali zituen Stalinek bere deportazio kanpaina erraldoian. Eta ez ziren horiek mugimendu bakarrak izan. Nutsak lau urte zituela, Stalin georgiarrak Georgiako Errepublika Sozialistan sartu zuen Abkhazia.

Huraxe izan zen hiru afrosobietar herrien hondamendiaren hasiera. Abkhaziarrek desplazatu eta haien etxeak kolonoek okupatzeko plana jarri zen abian. Haien hizkuntzaren erabilera debekatu zen, eta abkhaziar toponimo edota izen-abizenen arrasto oro eza batu zuten. Aldi berean, politikari, intelektual eta abkhaziar jatorriko pertsonaia publiko

asko exekutatu zituzten, haien aurkako akusazio faltsuak tarteke. Txetxeniarekin egin legez, abkhaziarrek Asiako estepetara deportatzeko aukera ere aztertu zuten Moskun.

PUSHKINEN BIRRAITONA TARTEAN

Eskualde hartako afrikar jatorriko komunitatearen lehen erreferentziak 1913an jaso ziren. Errusiar naturalista batek honela eman zuen Abkhaziako beltzen berri: «Paisaia tropikalak txundituta utzi nau. Aldi berean, poztu nau ikus-teak azalaren koloreak baino ez dituela bereizten afrikarrak besteengandik. Harmonia erabatekoa da».

Antzinako argazkietan, sepiak koloreko haietan, Nutsa Abashen aita ageri da. Itxuraz azpi-saharar peto-pettoa dena txerkeska izeneko kasakaz jan-

tzita dago, Kaukasoko larruzko txano tradizionala buruan duela. Nutsak berak zera kontatu zion senarrari: Abashidze leinuko georgiarrak printze batek bere birramona eta haren semea eraman zituela Abkhaziarra. Teoria batek dio Txatxba printzeak esklabo afrikarrak eraman zituela XVII. mendean, bere zitriko plantazioetan lan egin zezaten. Beste bertsio batzuen arabera, XVIII. mendean amaieran esklaboak zeramatzan otomandar itsasontzi bat Abkhaziako kostaldean hondoratu zen. Bizirik atera zirenak beren artean hartu zituzten abkhaziarrek.

Errusia inperialean esklabotza ohiko praktika ez bazen ere, garai hartako aristokraten artean modan jarri zen zerbitzari beltzak izatea. 1894ko harriera batean, Andrew Dickson White —Errusian AEBek zuten enbaxadorea— konturatu zen berari xanpaina zerbitzatzen zion mutila ez zela «nubiarra» (halaxe esan zioten), Tennesseeko gizasemea baizik.

Ez da guztiz okerra afrikarren presentzia, Errusian, esklabotzaren sarean bitartez azaltzea, baina ez zen hura bide bakarra izan. Pedro Handiaren semebitxiak, esaterako,

Nutsa Abash 1927an sortu zen Abkhazian. Sobietar Batasunean hiru herrik baino ez zituzten afrikar jatorriko biztanleak; Kaukasoko errepublika ttipian, hirurak

Denborarekin afro-sobietarren komunitatea nahastu eta sakabanatu egin zen. Askok Errusiarantz jo zuten; beste askok Itsaso Beltza zeharkatu eta Turkian aurkitu zuten aterpe



ЫЛЕВОЙ ПОПАЛИ В АБХАЗИЮ
ОДУ



Amsterdametik ekarri zuen ume bat. Kamerunen edo Abisinian (gaur egungo Etiopia) jaioa omen zen eta, aristokraziaren babespean, errusiar armadako komandante nagusi bilakatu zen. Abram Petrovitx Hannibal zuen izena. Istorioa, baina, ez da hor amaitzen. Alexander Pushkin errusiar idazle ospetsua Hannibalen birbiloba izan zen. “Pedro Handiaren Beltza” eleberria dedikatu zion Pushkinek birraitonari.

Kaukason erabat asimilatu izana zen afro-sobietarrak nazio gutxien gisa ez aitortzeko arrazoietakoa bat. Bestela ere, azal kolorearen araberrako populazioaren edozein bereizketak «kapitalismo kolonialaren seinale»-tzat hartzen zuen diskurtso ofizialak. Mezu onurgarri horiek, alabaina, ez ziren beti errotzen gizarte mailan. Askotan, afrikar itxurakoei, sobietarrak izan ala ez, “ipurbeltzak” edo “argazki negatiboak” esaten zitzaizkien. Egun ere, Kaukasotik edo Errusiako beste etnia ez-errusiar batzuetatik datozen herritarrei “beltzak” esaten zaie. Zalantzarik

gabe, afro-sobietarrak propaganda tresna indartsua izan ziren, baina ezin da ukatu Leningraden azpi-saharar jatorriko norbait maitatzea apustu zaila izan zitekeela.

ZER GERATU DA?

Nutsa 2008an zendu zen. Ospe handia bereganatu bazuen ere, abkhaziarrek bere ginekologo jardunari eta bere familiari eskaini zien bizitza. Egia da: oihartzun handiko titular haiez gain, ezer gutxi dakigu hari buruz. Jakin badakigu 1993. urtean, Abkhaziako Independentzia Gerraren ostean, bere jaioterria berreraiki zutela. Ordurako, baina, desagertua zen abkhaziar beltzen komunitate trinkoa.

«Askok bilatu beharko genuke euren arrastorik aurkitzeko Abkhazian», diosku Viatxeslav Txirikbak, Abkhaziako Atzerri ministro ohi eta antropologo ezagunak. Abkhaziako Sukhum hiriburuko terraza batean eserita, adituak Itsas Beltzeko beltzen «erabateko asimilazio kulturala eta linguistikoa» ekarri du mahaira. Nola da posible, beraz, ezkon-

tza mistorik apenas ez egon izana? «Arrazakeria baino gehiago, klasismo kontu hutsa zen. 1920an oraindik feudalismoaren aztarnak geratzen ziren, eta antzinako nobleen klanetakoak ez ziren nahasten zerbitzari eta morroiekin. Abkhaziar beltzak, jakina, gizartearen beheko geruzetan zeuden», argudiatu du.

Komunitatea nahastu eta sakabanatu zela dio. Askok Errusiarantz jo zuten; beste askok Itsaso Beltza zeharkatu eta Turkian aurkitu zuten aterpe. XIX. mendeaz geroztik, abkhaziar diaspora handitzen joan da Anatolian. Egun, 500.000tik gora omen dira Turkian.

Telefonoz Ankaratik, turkiar-abkhaziar ikerlari Dünnya Basolek baieztatu egin digu: «Anatolian badira abkhaziar gehiengoak duten hainbat herri. Haietan, hizkuntzak nahiz kulturak bizirik dira; dantzak, ezkontzak... ia ospakizun oro sasoi batean bezala kontserbatu da egundaino. Eta oraindik topa daitezke afrikar jatorria duten hainbat herritar», dio Basolek.

Afro-sobietar haietatik gertzen dena, ordea, zuri-beltzeko oroitzapena besterik ez da gaur egun. Nutsaren genealogian gehiago sakonduta, Diana Bobyleva bere bilobarekin egin dugu topo. Londresen bizi den abkhaziar batek pasatu digu haren kontaktua, baina Dianak ez du hitz egin nahi. Esateko zeukan «guztia» Sputnik kanalak egindako elkarrizketa hartan azaldu zuen, 2017an. Hala azaldu digu email bidez, elkarrizketa horren esatek bertan txertatuz.

Dianaren aurpegian, Nutsaren antz izpi bat sumatu dugu, edo hala sinetsi nahi izan dugu, agian. Emakume gaztea zuribeltzeko argazki batzuk erakusten ari da bideoan. Haietako batean, bere senararen ondoan ageri da Nutsa, dotore, soineko estanpatu batez jantzita eta hego zabaleko txapel bat buruan duela. 50eko hamarkadako Alabamako bikote baten erretratua izan zitekeen, erraz, edota Chicagoko jazz klub batean ateratakoa. Askotan, exotikotzat jotzen duguna unibertsalena ere izan daiteke.

Ezkerreko argazkian, Nutsaren biloba, Diana Bobyleva, Sputnik kanalari emandako elkarrizketan. Eskuinekoan, Nutsa Abash eta bere senarra, Semyom Bobylev, Sobietar Batasunean ateratakoa ez dirudien argazki batean. ABASH SENDIAREN ARTXIBOA



Ian ROBLES | ZUMA | EUROPA PRESS



IKUSMIRA

MEXIKO HIRIA HONDORATZEN ARI DA

Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko geologoek ohartarazi dutenez, Mexiko Hiria 10-30 zentimetro hondoratzen ari da urtean, batez beste, eta beraz, bizitzeko egokiak izango ez diren eremuak izango ditu eta hamar urte baino gutxiagoan desplazamendu behartuak egin beharko ditu uholdeen eta ur faltaren ondorioz. Populazio dentsitatearen, lurpeko putzuetatik ura modu irrazionalen ateratzearen eta eraikuntzen pisuaren eraginez, lurzoru buztintsu eta bolkanikoaren trinkotze-ahalmena mugara iritsi da eta lurra pixkanaka hondoratzen ari da. «Itzulera gabeko puntua da», adierazi du Wendy Morales geologoak. Angel de la Independencia monumentuaren adibidea aipatu dute geologoek: «Urte batzuetan behin maila bat gehitu behar diote, eusten dion lur eremua jaisten ari delako. Gobernuak eta herritarrek neurriak hartu beharko dituzte egoerara moldatzeko eta uholdeen kalteak gutxitzeko». Irudian, ekainaren 2an Mexiko Hirian izandako uholdeak. Ainara LERTXUNDI

Iaz argitaratu zuen “La llamada” bere azken-aurreko liburuarekin, Leila Guerriero idazle eta kazetari argentina-rrak hainbat sari jaso ditu. Besteak beste, Txileko Diego Portales Unibertsitatearen Emakumeak eta Hedabideak Katedraren Saria jaso zuen; Estatu espainolean, Narratibako Zenda Saria, eta Argentinan 2024an argitaratutako liburu onena hautatu zuten. Euskal Herrian, BBK Gutun Zuria jaso zuen, Itxaro Bordarekin batera. Jaialdi horretan, “Begiratu eta kontatu: hurbilketa bat kazetaritza narratibora” ikastaroa eskaini zuen. Donostian, *Diálogos de Cocina* kongresuaren hamargarren edizioan, “Nork esan du beldurra?” hitzaldia eman zuen. GAUR8rekin solasean, “La llamada”ren arrakasta eta kazetaritza narratiboaren erronkei aztertu ditu.

Argentinan diktadura garaian haurdun zegoela bahitu eta ESMAn torturatu zuten Silvia Labayruren profil sakona egin duzu. Montoneroak talde armatuko kidea zen, eta aske utzi zutenean salatartizat hartu zuten. Estatu espainolean babesa hartuta, iheslari askoren arbuioa jaso zuen. Zergatik konektatu du hainbeste istorio horrek irakurlearekin?

Norbaitek zergatia jakingo balu, liburu txundigarri bat egiteko formula izango luke. “La llamada” lanean nahiko modu gordinean berrikusten da begirada ezohikoa duen iragan bat. Elkarrizketatutako pertsonen ozen esaten dituzte elkarri esan ez zizkioten edo ahapeka aipatu zituzten gauzak. Gauza horiek mugimendu armatuetan parte hartu zuten batzuek egindako



«Gaur egun, hedabideetan gehien kezkatzen nauena albiste faltsuak dira»

LEILA GUERRIERO

IDAZLE ETA KAZETARIA

«La llamada» bere azken-aurreko idazlanarekin errekonozimendu handia jaso du Leila Guerrierok. Kazetaritza narratiboaren erakusle den idazle argentinarra GAUR8rekin mintzatu da.

Ainara LERTXUNDI

Argitaratu zenez geroztik ez dugu astebete ere igaro elkarrekin hitz egin gabe. Irakurri zuenean, bi orduko elkarrizketa polita izan genuen, bera Madrildik eta ni oraindik Buenos Airesen. Oso errespetatua eta ordezkatua sentitu zela esan zidan; txundituta utzi zuen berarekin izandako elkarrizketa guztietatik kanpo egin nuen lanak. Egia esan, nik neuk ezta berak ere ez genuen uste hainbesteko oihartzuna izango zuenik. Ez nuen pentsatzen salduenen zerrendan sartuko zenik edo urteko liburu aukeratuko zutenik. Eta Silviak, are gutxiago. Sareen bidez mezu pila jaso du, hala nola erakunde batzuen elkarrizketa-eskaerak, hura ezagutu nahi zuen politikari batena, berarekin hitz egiteko kafe bat hartu nahi zuen batena... Lagunek liburu irakurtzeak lurrikara txiki bat eragin zuen, ez txarrerako, baina liburuaren bidez ez zekizkiten gauza batzuen berri izan zuten.

“La llamada” idazteko Labayruren lagunekin, bikotekide ohiekin, seme-alabekin, aita-ekin, militantzia-kideekin... hitz egin zenuen. Nolakoa izan zen elkarrizketatuak hautatzeko prozesua?

Liburuaren barne-logika zutenean ezagutu zuten pertsonen bakarrak hitz egitea izan zen; nire ideia beti izan zen ezeren berri ez zuen edozein pertsona kanpoan uztea. Ez nuen iritzi-emailerik nahi.

Prestakuntzari dagokionez, pertsonaia publiko bat elkarrizketatzera zoazenean, eskuragarri dagoen informazio kopurua askoz handiagoa da bizitza publikoa ez duen pertsona bat elkarrizketatzera zoazenean baino. Eta, hor, elkarrizketan zehar ateratzen di-

autokritikarekin zerikusia dute. Silviaren kontakizunak barrualdeko alderdi intimo eta indartsu bat ukitzen du. Hemen ere diktadura bat, biolentzia eta aipatu ez ziren gauzak bizi izan dituzue. Alde horretatik etor daiteke liburuak izandako harrera ona. Ez dugu ahaztu behar Silviari ESMAn bahituta zegoela gertatu zitzaion guztia ere; pairatu zituen bortxaketak eta “adostasuna”ren kontzeptua. Ez baitute esanahi bera orain dugun kontzeptuak eta duela urte batzuk zuenak.

Nola bizi du Silvia Labayruk liburuaren harrera on hori?

ren datuekin, jakin-minarekin eta entzuteko gaitasunarekin jolastu behar duzu. Beste pertsonaren kontakizunarekin oso adi egon behar duzu, haren bizitzan garrantzitsuak izan ziren pertsonak agertuko baitira; nik beti galdera asko egiten ditut bizitzako etapa guztiei buruz; batez ere, liburu bat idazten ari naizenean.

Gutun Zuria jaialdian ez-fikziozko lan bat saritu zuten. Balorazio unerik onenean dagoela uste duzu?

Ez dakit ez-fikzioa unerik onenean dagoen. Hori esateko irakurketa luzea egin beharko litzateke, baina uste dut ez dela inola ere unerik okerreana. Duela urte gutxi batzuk, ez zegoen kazetaritza narratiboaren generoaren pean idatzitako ez-fikzioari eskainitako hainbeste argitalpen-zigilurik. Ez-fikzioa saiakera, filosofia, psikoanalisi ere bada. Baina, kazetaritza narratiboa ez zen indar handiz iristen argitaletxeetara, eta uste dut orain helden ari dela. Argitaletxeek kazetaritza narratiboa egiten dugun egileekiko interesa dute. Iruditzen zait oso eremu emankorra dagoela, eta editoreek ikusi dutela mundu bat dagoela genero horretan.

Latinoamerikako eta, bereziki, Argentinako idazleen “boom” bat dago?

Ez dakit “boom” hori existitzen den, baina ikusten dut, hala ere, interes berezia dagoela. Dena den, geure buruari galdetu beharko genioke, “boom” bat dagoela esaten dugunean, horrek guztiari etiketa jarri beharrari erantzuten dion ala ez. Argentinan oso literatura ona egiten ari da fikzioan eta ez-fikzioan. Interesgarria iruditzen zaidana da



Argazkiak: Mikel MARTINEZ DE TRESPUNTES | FOKU

argitaletxeak konturatu direla emakumeak idazten ari direla, eta asko eta talentudunak direla. Lehen, gizon baten eskuizkribuaren eta emakume baten eskuizkribuaren artean, gizona baten ematen zitzaion lehentasuna; gaur egun, ordea, hori ez da inola ere gertatzen. Liburu azoketara bidaiatzen hasi nintzenean, mahai inguruetan emakume bakarra izan ohi nintzen. Hori orain ez da gertatzen. Pixkanaka kitatzen ari den zorra da.

Gutun Zuria jaialdian “Beguiratu eta kontatu: hurbilketa bat kazetaritza narratibora” ikastaroa eskaini zenuen. Zer da kazetaritza narratiboa?

Oso zaila da hitz gutxitan laburbiltzea, ikasturte oso bat pasa baitezakezu horri buruzko eskolak ematen. Nire ustez, gakoa kazetaritza zer den ulertzea da. Ikustea, ikertzea, behatzea eta galdetzea dira kazetaritza narratiboaren osagaiak. Ez dago asmakizunik.

IBILBIDEA Juninen (Argentina) jaioa, Leila Guerrierok ibilbide oparoa du kazetaritzan eta liburugintzan. Kaleratu dituen liburuen artean, “Los suicidas del fin del mundo. Crónica de un pueblo patagónico”, “Frutos extraños. Crónicas reunidas 2001-2008”, “La otra guerra” eta “La dificultad del fantasma. Truman Capote en la Costa Brava”. “La llamada”-rekin hainbat sari jaso ditu.

Halako testu on batek ez du asmatutako eszenarik edo kazetariari bakarrik komeni zaiolako hark sortutako pertsonaiarik. Ekintzatik haratago doan hizkuntzaren erabilera ere eskatzen du, bestalde. Horretarako, kazetariak irakurle handiak izan behar dira, hortik baitatoz idazteko grina eta baliabide narratiboak. Autodidazio-gaitasun handia ere eskatzen du, norberaren testua beste batena balitz bezala irakurtzea. Kazetaria ez den norbaiti esan beharko banio zertan datzan kazetaritza narratiboa, esango nioke dokumental bat bezalakoa dela, baina idatzia.

Adimen artifizialaren aro honetan, zer erronka ditu kazetaritza narratiboak?

Kazetaritzaren munduan eragina nabarmena da; batez ere, eguneroko albisteei dagokieenez. Tamalgarria da. Adimen artifizialaren erabilerak mugikorren bidez argazkiak bi-

daltzeko gai izateagatik mundu guztia kazetaria izan zitekeela esaten zen garaia gogorarazten dit. Denek egin badezakete guk egiten duguna, zertarako gaude kazetariok? Orain askok besoak zabalik hartu dute adimen artifiziala. Noraino irits daiteke? Ez dakit, horrek gaintitu egiten nau. Baina uste dut adimen artifizialak ezin duela kazetaritza narratiboko testu bat sortu kazetari on batek egin dezakeenaren mailan. Ezagutzen dut, migratzaileei buruzko liburu bat idazteko, bi urtez kontinentez kontinente ibili tako jendea. Oraingoan, adimen artifizialak ez du behaketa-lan hori guztia egiteko modurik.

Zer diagnostiko egiten duzu egungo kazetaritzaz?

Egun, hedabideetan gehien kezkatzen nauena, adimen artifizial eta gogogabeko lanetik haratago, albiste faltsuak eta desinformazioa dira. Hori tamalgarria iruditzen zait, hedabideek berek sortu dituztelako, zer egiten ari ziren jakinda. Lotsagarria da, irakurleak erakartzeko, titular deigarri batekin engainatzen saiatzea ere; izenburuari buruzko informazioa aurkitzeko azken-aurreko paragrafoaraino iritsi beharra eta, hori egiten duzunean, titularrarekin zerikusirik ez duela konturatzea. Irakurleak pentsatzeko gaitasunik ez duten pertsonak balira bezala tratatzen dituzte. Baina, noski, klik egiten dute. Fake news delakoak oso arriskutsuak dira demokrazia osasuntsu batean bizi ahal izateko. Ez nekizkien eta fidagarriak ziren gauzak kontatzen zituzten komunikabideak irakurritz hezi nintzen. Orain askok X, Tik-Tok edo Instagramen ikusten dituzte, baina ez dago pedagogiarik.





Ula IRURETAGOIENA BUSTURIA - @ulissima5
Arkitektoa

Hirigintza kooperatibismotik

UEuren 53. Udako Ikastaroetako batek kooperatibismoaren eta komunitatearen arteko loturak eta aukerak aztertu ditu Usurbilgo Udalarekin eta Jakin-ekin batera antolatuta.

Kooperatibismoa ikastaro askoren jarduna izan da arestian, eta egun, interesik galdu gabe, askoren ustez, krisialdi garaikide askorentzako erantzun posible bat gordetzen du bere baitan. Kooperatibismoa Ekonomia Sozial Eraldatzailearen sinonimotzat jo zuten ikastaroaren antolatzaileek. Ekoizpen eta ekonomia bat mugitzearekin batera, neokapitalismoaren aurrean alternatiba izan nahi du, langileen burujabetza eta lanaren duintasuna sortzen den zerbitzu/ekoizpenaren muinean jarrita. Kooperatiba asko komunitatetik sortzen dira eta komunitatera begira jartzen dute beraien jarduna; askorentzat, epe luzera begira, helburu estrategikoa lurraldearen burujabetza eskuratzea da. Horregatik, estrategikoa da energia, elikadura, etxebizitza, zaintza eta kultura alorretan eragitea kooperatibismoaren ehundura bat hedatzeko.

Interesgarria da kooperatibismoak sorreran eta bidean aurkitzen dituen zailtasunak aztertzea, ereduaz hitz egiten duelako. Kooperatibak publiko-pribatu banaketa kuestionatzen du (publikoa ez dena pribatua ez dela dioelako), bere eragite-esparrua pribatu eta publikoaren interesaren alde egitea da. Zerbitzu publiko bat baina administrazioaren egitura eta ulermenetatik aparte eragiten duelako batzuek galdetzen dute ea ez den administrazioaren lana egiten ari edo benetan administrazio publikoak egiterik ez duena egiten duen. Ikastaroak administrazio publikoekin batera ekitea aldarrikatu zuen, helburuak bateratzean, eragile lokal eta herrikoi baten tresnarekin, politika-publiko eraldatzailea egin daitekeela sinetsita

Hirigile bezala herri-kooperatiben ideiak klik handia eragin zidan. Herritarrek beren inguruko egoera ekonomikoa aldatzeko ekimena hartzen dute-

nean eratzen da herri-kooperatiba. Landa-eremuan ohikoa goa bada ere, hirietako auzoetarako tresna ere izan daiteke. Ekonomia lokala desegiten ari baita lurralde osoan zehar. Herri-kooperatibak, baina, denda bat irekita izatea baino askoz gehiago suposatzen du, biztanleek bultzatzen dute-eta, dirua pilatu orde, komunitatea egiteko funtzioa duelako. Horregatik 'herri-kooperatiba' hitzak afektu-mugimendu bat sortzen duela adierazi zuten kooperatibistek. Arau juridikoetan gabezia handia dagoen bezala, herri-kooperatiben rola hirigintzatik berrikustea beharrezkoa da. Lurraldean eragiteko tresna bat delako, ekonomiarekin eta zerbitzu publikoekin harremanean den edozer gauzatarako baliagarria da herri-kooperatiba. Eraikuntza-lanetarako, lagapen lurzoruetan herri-proiektuak burutzeko edo energia-komunitateentzat. Prozesuaren une jakin batean espazio fisikoak berebiziko garrantzia duela zioten kooperatibistek. Ekimena herritarrek edo auzotarrek burutu behar badute ere, herri-egitura administratiboak (hirigintza barne) prest egon behar du gertatzen direnerako; prestakuntza eta formakuntzarekin batera, lurralde-ehundurak ekimenak jaso eta bidea erraztu behar die ahal duen heinean, lurraldearen mesedetan lan egiteko elkarrekin. •



{ asteari zeharka begira } **Iraitz MATEO GOGORZA**

Kale giroa

U da-udak bi usain ditu niretzat: eguzkitako krema eta itsaso usaina, batetik, eta bestetik, bezperako arrastoak oraindik garbitu gabe dituen txosnagunearena. Ez da kasualitatea dilista edota libiba usainekin ez lotzea uda-uda. NAIZ irratiko “Iruindar berriak” saioa ari zitzaidan lanerako bidean konpainia egiten, gomendatzen zituzten liburu eta filmen izenburuak ezin apuntatuagatik amorratzen ari nintzen bihurgunean hasi ziren sanferminen inguruan hizketan.

Beti iruditu zaizkit oso luzeak hiri buruzagian antolatzen dituzten sanferminak, eta oraindik ere guztiz ulertzen ez ditudan errituak eta bizipenak badituzte ere, aipatzen zituzten hainbat gomendio ia Euskal Herriko festa guztietara estrapolatu daitezkeela uste dut.

Gomendioa 1: Zuriz jantzita joan, eta *ojo*, gama bereko arropa zuriak. Gomendioa 2: Erosi kamiseta aldarrikatzaileak, baina zaharrak ere bota, tarteka. Gomendioa 3: Hamaiketako egiteko lekua urtetik urtera erreserbatu, eta bestela, atera mahaia kalera eta hamaiketako autogestionatua egin. Gomendioa 4: Sanferminak hasi aurretik garbitu etxea, gero ez duzu astirik izango. Gomendioa 5: Prestatu alde aurretik janaria, egun guztietakoa, gero ez duzu denborarik izango. Gomendioa 6: Kontuan hartu ajearekin esnatzeko arriskua, erosi jateko kutxiren bat. Gomendioa 7: Ohiko lagun taldeetatik at talde berriak sortzeko gaitasuna dute sanferminek, aprobetxatu. Gomendioa 8: Gozatu, eta ez badakizu egoten ez etorri.

Gomendio horiek jarraitu eta haien alde onez gozatzeko, aurretik norbaitek egin behar dituela egin beharrekoak ohartarazi zuten. Norbaitek zuritu behar dituela arropak, prestatu eta izoztu desorduetan jango dituzun tuperrak edota komuna garbitu. Guztia prest egoteak ezin du betikoen zama izan, eta guztia prest badugu ireki ditzagun begiak eta konturatu gai-

tezen ea nola dugun arropa zuri tolestua armairuan, egunero zer jan, edo izerdi usaina nork erositako xaboiarekin kendu dugun.

Adriana Guzman boliviarraren hitzaldi batean entzundakoekin egin nuen lanerako bidea biharamunean. Deskolonizazio prozesuez eta lurraldeak zein lurrak bertan duten garrantziaz ari zen, eraldaketa prozesuekin lotuz: «Janaria ekoitzi behar dugu, lurra- rekiko lotura horretan ekoitzi, baina ezin dugu ahaztu jendearekin batera jateaz. Janaria ez dugu ekoizten bakarrik jateko, elkarrekin egiteko baizik».

Batera jan, jendearekin jan. Buelta eta buelta izan dut ideia, eta gero eta bizimolde azeleratu eta indibidualista honetan, kozinatze denbora gutxi hartzen dugunaren pentsamoldea banuen lehenagotik ere; badakit gure amonak zenbat denbora eskaintzen dion sukaldeari, eta zenbat nik. Baina otorduak elkarrekin

«Kalean geratzeko hamaika aitzakia eta motibo ditugun arren, pasa gaitezen etxetik, eta zaindu ditzagun etxeakoak ere. Eta jan dezagun elkarrekin»

egitearen usadioa ere galtzen ari ote gara? Norberak bere martxa duelako, tuperrekin hara eta hona gabiltzalako, bakoitzak dieta berezi bat jarraitu nahi duelako. Tuperrak edota lanetik itzultzerako afaria prestatzen didatenei infinitu eskertzen diet, hori baita maitasun keinu emozional zein material handienetakoa. Eskertzen dut prest egotea, baina ez ote garen gu-txitxo esertzen mahaian.

Kale giroa da nagusi behin sanjoanak pasatuta. Eguzkitako krema eta txosnaguneko giroa gustuko ditugun arren, kalean geratzeko hamaika aitzakia eta motibo ditugun arren, pasa gaitezen etxetik, eta zaindu ditzagun etxeakoak ere. Eta jan dezagun elkarrekin, udako *sobremesa* luzeen alde.

HIZKUNTZA ANIZTASUNA

Bortzirietara migratu duten pertsonen euskararekiko jarrerak aztertu dituzte

 **JENDARTEA** / Maider Iantzi Goienetxe

Bortzirietako hizkuntza aniztasuna: migratzaileen euskararekiko pertzepzioak eta jarrerak” ikerketa plazaratu dute. Pello Apezetxea Zubiri ikerketa beka irabazi duen lana da, Paula Laita Pallares, Jon Martin Etxebeste eta Ane Osua Cabidak sinatua. Hizkuntzarekiko harremanak hobetzeko eta eskualdeko dinamika soziolinguistikoa hobeki ulertzeko helburua du.

Palmako “Ideoling” kongresuan aurkeztu ondotik, eskualdeari itzuli dizkiote emaitzak, Berako Beralandeta aretoan egindako ekitaldian.

Migratu duten pertsonak Nafarroako biztanleriaren %16 badira, Bera, Lesaka, Etxalar, Igantzi eta Arantzaren kasuan aunitzez baxuagoa da kopurua: %9,2. «2004tik 2021era bost puntu baino ez da hazi, nahiz eta jendearen inpresioa esajeratuagoa izan ohi den datuak baino», azaldu du Martinek. Etorri diren pertsona horietako gehienak (%61) Beran bizi dira: 483 lagun.

Jatorriari dagokionez, %49,3 Ameriketatik etorri dira (nagusiki Hego Amerika eta Erdialdeko Amerikatik), %44,9 Europatik, %4,6 Afrikatik eta %1,2 Asiatik. Europarren artean %55 gizonak dira; amerikarren artean, %60 emakumeak.

Bortziriak euskararen arnagune dira. Beran, %67k ezagutzen dute euskara, baina bertze %13 hartzaileak dira; hortaz, %80k ulertzen dute, guztira. «Horrek esan nahi du eguneroko elkarriketa gehienak euskaraz izan daitezkeela», baloratu du Martinek.

Hezkuntza izaten da migratzen duten familiek hartu

Jon Martin Etxebeste, Paula Laita Pallares eta Ane Osua Cabida Pello Apezetxea bekaren irabazleek Bortzirietako hizkuntza eta kultura aniztasuna ikertu dute. Migratu duten herritarren euskararekiko pertzepzioak, jarrerak eta beharrak behatu dituzte. Eskualdeari itzuli dizkiote orain emaitzak, zenbait proposamenekin batera.

behar izaten duten erabakieta-ko bat. A eta B ereduak eskaintzen dituzten bi zentro daude, Jesusen Bihotza Ikastetxea eta Toki Ona Institutua, biak Beran. Hor pilatzen dira migratu dutenen seme-alaba gehienak, bereziki kristautasuna erans-ten zaion ikastetxean. Ikasle- en %40 izatera iristen dira.

GALDETEGIA ETA EZTABAIDA TALDEAK
Metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa erabili dute proiektuan. Errumania, Honduras, Nikaragua, Argentina... jatorri aunitzetako 400 herritarrek parte hartu dute galde- tegian, ikasleek (10-18 urte-koek) eta helduek. Horrez gain, 11 eztabaida talde osatu dituzte eta, horietan, 45 lagunek egin dute ekarpena, 22 ikaslek eta 23 helduk.

Bai galdetegietan bai ezta- baida taldeetan euskaraz edo gaztelaniaz adierazteko aukera izan dute. «Guretzat hori gar- rantzitsua zen filtro bezala, hor jada emaitza ikusten zen», adierazi du Laitak. «Batzuek bazekiten euskara pixka bat, baina haiek eroso sentitzeari eman genion lehentasuna».

Bera, Lesaka, Arantza eta Etxalarko zazpi eskola eta eus- kaltegi bat izan dira partaide. Ikastetxeen bidez iritsi dira helduengana eta ikasleenga- na. Igantziko eskola ez da ba-

tu, migratu duen familia baka- rra duelako.

«EUSKARA HAGITZ ZAILA DA»

Lehenengo emaitzetako bat da «euskara hagitz zaila» dela. Hori uste du euskaraz ez da- kien jendeak, baina Bortzirie- tan jaiotakoek ere hori erraten dute beraien hizkuntzari bu-ruz. Bitxia egin zaie ikerlariei zenbateraino dagoen ideia ho- ri barneratua. Bertzetik, hiz- kuntza nortasunaren zati ga- rrantzitsu bat dela baieztatu dute denek. Zer solas egiten dugun eta nor garen hagitz lo- tuta daude.

Ez dute ahozko eta idatzizko gaitasuna neurtu. Horren or- dez partaideei galdetu diete zer maila duten. Logikoki, eus- karaz erantzun dutenek maila altua dutela erran dute. Gazte- laniaz parte hartu dutenek, or- dea, baxua. Gaztelaniari buruz galdera bera eginda, eskual- dean sortutakoek maila apala- goa aitortu diote euskarari baino. Gehienek ahoz idatziz baino hobeki moldatzen direla uste dute.

Ikerketan parte hartu du- ten pertsonen gehiengo za- balak hagitz ongi baloratzen du ikastetxeek euskalduntze- ko egiten duten lana. Etorki- zunera begira, ikasleek eus- kara maila ona izanen dutela iruditzen zaie. Erabilerari

erreparatzen badiogu, ikusi- ko dugu ikasgelan %37k egi- ten dutela euskaraz. Jolas ga- raian, ordea, %22ra jaisten da. Ikasleen erdiak gelan gaz- telaniaz solas egiten duela erraten du eta patioan %78ra igotzen da kopurua.

Youtuben eta Tik Token gaztelaniaz ibiltzen dira na- gusiki, baita euskaraz eran- tzun dutenak ere. «Euskaraz- ko tiktokerrak behar ditugu», hortaz. Musikaren kontsu- moan, aldiz, euskara da na- gusi. Honako irakurketa hau egin dute: «Industria indar-



tsu bat dagoen arloetan jendeak euskaraz kontsumitzen du. Gaztelaniazko hiztunen artean ere euskarazko musikak arrakasta koskorra du. Gauzak ondo egiten direnean emaitzetan islatzen da».

«EUSKARA MAITE DUT»

Denek maite dute euskara. Bortzirietan bizi diren migrazioaile haurrek ere bai. %35 erabat ados dago eta %20 ados. Gero banaketa bat dago, %15ekoa, euskararekiko maitasun hori garatu edo aitortu ez duena.

Bortzirietan jaio zirenek %71ko erabateko adostasuna agertu dute. Ez dira adostasun handiena duten pertsonak. Bortzirietatik kanpo baina Euskal Herritik hona etorri ziren pertsonak gehiago maite dutela erantzun dute.

Espainiar Estatutik etorritako familien artean %16k bertzerik ez du euskararekiko erabateko maitasuna adierazi. Latinoamerikatik etorritakoen artean, aldiz, erdiak erraten du euskara maite duela. Martinek uste du aurreiritziak ikusteko hagitz egokia dela datu hori.

Etorri berriak direnetan mesfidantza handien duen taldea da espainiarrena. Baina belaunaldi batetik bertzera, jatorri espainiarra duten gurasoetatik hemen jaio diren haien seme-alabetara, zeharo aldatzen dira baieztapenak. Azken horiek euskararekiko maitasuna aitortzen dute.

Irakurketa bera egin dezakegu lehen hizkuntza kontuan hartuta. Euskara ama hizkuntza dutenen artean, %78k maitasun handia erakusten diote eta erdiek, berriz, euskara ge-roago ikasi dutenen artean.

Paula Laita Pallares eta Jon Martin Etxebeste, ikerlanaren egileetako bi, Berako Beralandeta aretoan aurkezpena egiten.
Jagoba MANTEROLA | FOKU

Horien artean atxikimendu txikia erakutsi dute %15,4k eta lehen hizkuntza euskara dutenetan, %1,4k. Emakumeek euskararekiko jarrera hobexeagoa dute gizonezkoek baino, Euskal Herri mailan gertatzen den gisan.

«GUSTATZEN ZAIT EUSKARAZ EGITEA»

Galdetegia gaztelaniaz erantzun duten pertsonen errepertorioa diegu orain. «Gustatzen zait euskaraz egin diezadaten» izan da galderetako bat. %28 erabat ados dago eta %12 ados. «Segur aski euskaldunok uste duguna baino jende gehiagori gustatzen zaio euskaraz egitea», ondorioztatzen dute.

Ifrentzua ere ikusiko dugu. «Euskarazko hiztunek egokitu egin beharko lukete erosoago nagoen hizkuntza batera». %34 erabat ados dago baieztapen horrekin. «Badirudi jendea eroso senti daitekeela berri euskaraz hitz eginda, zerbait ulertzen badu, behintzat. Baina gauza garrantzitsua bada edo elkarrizketa luzea bada nahiago du hiztuna bera erosoago dagoen hizkuntzara pasatzea», azaldu du Laitak.

Eztabaida taldeetan horrelakoak entzun dituzte. «Ez naiz integratuta sentitzen ez badut dena ulertzen». «Hasieran ez zait inporta euskaraz egiten badidate, baina gero, taldean hobeto sentitzeko nahiago dut hizkuntza aldatzea». Batzuetan hala erraten zuten: «Uler-tzen dut nik egin behar dudala ikasteko ahalegina. Baina hobeto sentitzen naiz gaztelaniaz hitz egiten badute».

MOTIBAZIOA

Guztiek ikasi nahi dute euskaraz. Badute motibazioa, garrantzitsua dela ohartzen dira. «Hemen jaioa izan nahi nuke



euskara gehiago jakiteko». «Bertakoek badakite eta nik ez, kanpotarra naizelako». Batzuetan muga bezala ikusten dute euskara. «Euskara ikasi nahi dut erraten dutena ulertu nahi dudalako». «Ez dut hitz egiten baina ulertzen dut, jada integratuago sentitzen naiz». Balio instrumentalak hartzen du garrantzia. Haientzat euskaraz jakitea inportantea da integratuta sentitzeko eta lan hobea aurkitzeko.

Batzuek behar morala aipatzen dute: «Badakit nire ardurara dela euskara ikastea». Komunikatzeko, sozializatzeko eta eguneroko bizitza egiteko euskara jakitea komeni dela ikusten dute. Eta badakite gaitasun kognitiboa hobetzeko edozein hizkuntza ikastea garrantzitsua dela.

Balio psikologikoari dago-kionez, euskaltegian dabil-tzan guraso batzuek umeak D ereduan dituzte eta hala erraten dute: «Ez dakit asko, baina hobeki sentitzen naiz etxerako lanetan lagun dezakedalako».

ERRONKAK

Dirua ez da euskara ikasteko arazo nagusia beraientzat, kasu gehienetan bazekitelako akordio batzuk daudela haiek euskaltegira joateko. Bertze faktore batzuk aipatzen dituzte, logistikarekin lotutakoak. «Bi lanetan nabil eta ez daukat denborarik. Ez daukat kotxe-rik. Arantzan bizi naiz eta euskaltegia Lesakan dago».

Beharrari buruzko iritzi desberdinak jaso dituzte. Adibidez, haien lehen hizkuntza gaztelania bada, ez dute euskara behar. Bizitokiaren arabera aldatzen da. Arantzan, errate-rako, beharrezkoa dela diote. Baina Beran ez.

Batzuek aipatzen dute ez du-tela sustraitzerik. «Ez dakit he-



Jon Martin Etxebeste eta Paula Laita Pallares Bortzirietako hizkuntza aniztasunean barneratu dira, azterketa bat egin eta gero proposamen batzuk luzatzeko.

Jagoba MANTEROLA | FOKU

men geldituko naizen, agian mugitu egingo naiz. Hortaz, ez dut euskara ikasteko motibazio-rik». Bertze batzuek, ordea, gelditu nahi dute eta garrantzitsua da haientzat euskara.

Bortziriak euskaraz bizi den eskualdea da, populazioaren gehiengoak euskara du lehen hizkuntza eta euskaraz aritzen direnek gaitasun ona dute. Baina gaztelaniaz mintzo direnek zailtasunak dituzte euskara menderatzeko. Euskarareki-ko maitasuna handia da. Gaztelaniarekiko lotura emo-zionala bezala.

Euskara Bortzirien identita-tearen zati garrantzitsua da eta, oro har, euskararekiko ja-rrera baikorra da, nahiz eta migratzaileen integrazio lin-guistikoa zenbait erronka egon.

PROPOSAMENAK

Partaideen hitzetan oinarritu-ta, proposamen batzuk ekarri dituzte ikerlariak: lehena, bi hiz-kuntzetan egindako elkarriket-

tak bultzatzea. Pixka bat ikasiz gero, belarriprest izatea posible ikusten dute. Bertzetik, euskara erabiltzeko aukera gehiago sor-tzea ikastetxez kanpoko jardue-retan eta komunitatean. Ekital-di eta jarduera horiek inklusiboak izan behar dute, de-nak ongi etorriak eta babestuak senti daitezen.

«Estrategia pertsonalizatuak diseinatu daitezkeela ikusi du-gu guk, sarri beharrak oso per-sonalak dira eta. Herri txikiak dira eta egoera bakoitzean behar bat agertzen da. Izan daiteke garraioa, izan daiteke

denbora. Izan daiteke harrera-ko momentu horietan zer behar duten ikustea».

Mentoretza programak la-gungarri izan daitezke. Horie-tan bertakoak arduratzen dira harrera prozesuan dagoen norbait hartzeaz eta herrian integratzen laguntzeaz. Mate-rial eta baliabide berriak gara-tzea da bertze lan ildo bat, ele bitan ere eskaintza zabalduz.

Ama batek aipatu zuen eto-rrri zenean haur txiki bat zuela eta A ereduan matrikulatzea erabaki zuela errazteko. Baina gero, bigarren eta hirugarren seme-alabekin konturatu zen D ereduan matrikulatzeak au-kera gehiago ematen zizkiela. Hala dio: «Hasieran ez zidaten erran. Nire maitasun osoare-kin egin nuen bere eskolako martxa ez atzeratzeko». Ho-rregatik, Udalaren, ikastetxeen eta euskaltegiaren arteko koordinazioa hobetzea fun-tsezkoa da, bereziki harrera egiteko unean informazio osoa emateko.

Etorri berrietan mesfidantza handien duen taldea da espainiarrena. Baina belaunaldi berrietan zeharo aldatzen dira baieztapenak

Bi hizkuntzetan egindako elkarriketak bultzatzea proposatu dute. Euskara erabiltzeko aukera gehiago sortzea ere bai ikastetxez kanpoko jardueretan eta komunitatean



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka IZAGIRRE BROSA

Denboraren joana telesailen narrazioetan

Pantaila handira une batez jauzi eginez, Richard Linklater mai-sua da denbora elementu narratibo gisa erabiltzen; bere lanek erakusten dute denboraren joanak istorio bat eta haren pertsonaiak sakonki aberastu ditzakeela. Adibide ikoniko bat “Boyhood” (2014) da: 12 urtez aktore berberekin filmatua, protagonista-ren benetako hazkundea erakusten du haurtzarotik gaztarora. Linklaterrek denbora erabiltzen du ez bakarrik aldaketa fisikoak islatzeko, baita emozionalak, sozialak eta kulturalak erakusteko ere. “Before” trilogia ere adibide aparta da.

«THE UP SERIES» ESPERIMENTUA

Gaurko gaia traman urte asko islatzen dituzten telesailak aztertzea bada ere, “Boyhood” aipatzen hasi naizenez, ezinbestekoa da pantaila txikiko kasu harrigarri bat nabarmentzea: “The Up Series”. Zortzi dokumentaleko serie bat da, eta zazpi urtean behin elkarrizketatzen diren Britainia Handiko 14 pertsonaren bizitzari egiten dio jarraipena. Lehen atalean, guztiek 7 urte zituzten. Proiektua 1964an hasi zen, Paul Almondek Britainia Handiko gizarteko sektore sozioekonomiko ezberdinetako 14 haur elkarrizketatu zituenean. Handik aurrera, zazpi urtetik behin, Michael Apted zuzendariak “esperimentu antropologiko” horrekin jarraitu zuen, pertsona berak elkarrizketatuz. Zortzi-

Urte luzez hedatzen diren telesailek xarma berezia dute: ikusleari pertsonaien bila-kaera sakona jarraitzeko aukera ematen diote, baita haien arteko harremanen eta bizi diren ingurunearen aldaketak ikusteko ere. Berriki estreinatu duten «Blossoms Shanghai» horren adibide garbia da, baina badaude beste hainbat ere.



garren zatia 2019an eman zuten, “63 Up – The Up Series” izenburupean.

DENBORAREN JOANA NARRAZIOAN

Gatozen, beraz, istorioan (ez filmaketan) denboraren joana islatzen duten zenbait proposamen interesgarri aletzera. Hamarkada askotan garatzen diren tramek ez dute soilik pertsonaien erretratua eskaintzen; bizipen horien kokagunearen eraldaketa historikoa, soziala eta kulturala ere erakusten dute.

Asiako ekialdea: «Blossoms Shanghai» eta «Pachinko»

Shanghaiko neonen distira lausoan, “Blossoms Shanghai” telesailak denboraren hariari helduko dio hasieratik, eta 1960ko hamarkadatik XXI. mendearen lehen urratsetarainoko bidaia poetikoa egingo du. Kontakizuna 90eko hamarkadan abiatzen da, Shanghaiko burtsa irekitzearekin batera; gorakada ekonomiko ikaragarri baten abiapuntua, aukera eta arriskuz beteriko aro baten ataria.


Ah Bao da istorioaren bihotza, Ge Hu aktore txinatarrek hezurmamitzen duen pertsonaia: haren eraldaketa erakusten du telesailak, txiro izatetik finantza munduko enpresaburu boteretsu izate rainokoa. Haren gorakadak hiriaren beraren eraldaketa

islatzen du, norbanakoaren eta metropoliaren arteko ispilu joko gisa.

Wong Kar-Wai zinemagi-leak bere sinadura estilistikoari eusten dio: egitura zatikatua, flashback-en dantza malenkoniatsua, barne-bakarrizketen xuxurlak eta ia onirikoa dirudien giro estetikoak uztartzen ditu. Ikusleak hasieratik ulertu behar du “Blossoms Shanghai” ez dela telesail konbentzional bat, baizik eta esperientzia sensorial bat: malenkoniak tindatutako bidaia bisual bat da, patxadaz gozatzekoa. Lehen atalak erritmo geldo eta estilo berezi batez josten dira, eta ez da erraza haien tonura egokitzea. Baina behin barrura sartuta, zentzumenei hel tzen dien eta hipnosira daraman obra bihurtzen da.

Hego Koreako “Pachinko” telesailaren istorioak XX. mendeko Koreatik Japonia eta Ameriketako Estatu Batuetara eramango gaitu, Koreak Japoniaren inbasioan bizi izan zuen errealtatearen zati bat ezagutarazteko. Bidaia hori Sunjaren begietatik egingo dugu, 1920ko hamarkadan hasi eta 1989ra arte. Testuingurua oso zabala izan arren, tonua nahiko intimista da. Debekatutako maitasun batekin hasten den istorio epiko eta intimoa azaltzen da, eta Korearen, Japoniaren eta AEBen artean bidaiatzen duen kontakizun bihurtzen da. Gerra eta bakkea, maitasuna eta galera... era guztietako osagaiak topatuko dituzu telesail honetan.

Hori guztia oso interesgarria bada ere –are gehiago, gertaera historiko horien inguruan dugun ezjakintasuna kontuan hartuta–, jorratzen duen gaia ez da telesail ho-



nen bertute nagusia. Erakargarriena kontatzeko modua da, testuinguruaz baliatuta belaunaldi oso baten erretratua egiten baitu: seme-alabak eta bilobak aurrera ateratzeko ahal zuten guztia egin zuten emakume korearra.

Britainia Handia: «Say Nothing», «This Is England» eta «Small Axe»

“Say Nothing” Patrick Rad-den Keefe-ren izen bereko bestseller txalotuaren egokitzapena da. Lau hamarkadatan IRAko zenbait kide Ipar Irlandan nola bizi diren azaltzen du. Price ahizpak dira istorioaren ardatza. 1972. urteko abenduan, ezezagun batzuek Jean McConville bahitu zuten, hamar seme-alaba zituen 38 urteko alarguna. Rad-den Keefe kazetariak, kasu haren zirrikituak ikertzea erabaki zuenean, ez zuen pentsatu ere egingo Ipar Irlandako gatazkari buruzko kronika oso bat idatziko zuenik azkenean.

Telesailari izena ematen dion liburuan, dozenaka testigantza biltzeaz gain, milizia errepublikanoen profesionalizazioa, Britainia Handiko estatuaren errepresioa, indarkeriaren gorakada eta, batez ere, protagonistetako batzuen bilakaera ideologikoa erakusten ditu. Liburua argitaratu eta zazpi urtera, istorio horretatik abiatu dira “Say Nothing” telesaila sortzeko. Hasieratik, Belfastko kaleetan murgiltzen da telesaila; hiria bera narrazioaren beste protagonistetako bat da. 70eko eta 80ko hamarkadetako Belfasten birsorkun-


tza aparta da, eta girotze lana xehetasunez josia dago.

Derrigorrezkoa da, halaber, “This Is England” telesaila aipatzea: 2006. urteko izen bereko filmaren jarraipena da. Filmeko gertakarietatik hiru urtera kokatutako telesaila da, eta pertsonaiak berberak dira. Hala ere, telesailak filmaren erdigunetik –arrazakeria eta skinhead kultura– urruntzen da, eta arreta handiago eskaintzen die bigarren aukerei, bizitza aldatzeko saiakerei eta, tartean, denboraren joan-etorriari. Hiru denboraldi ditu: “This Is England ’86”, “This Is England ’88” eta “This Is England ’90”, bakoitza urte jakin batean girotua.

Azkenik, Steve McQueenek BBCrentzat sortu eta zuzendu zuen “Small Axe”. Kasu honetan denboraren joana ez da aitzakia bat bakarrik: plano bakoitzean taupaka ari den pertsonaia bihurtzen da. Saila osatzen duten bost atalek edo filmek –“Mangrove”, “Lovers Rock”, “Red, White and Blue”, “Alex Wheatle” eta “Education”– Londresko antilatar komunitatearen benetako zein fikziozko istorioak kontatzen dituzte, eta protagonistek une jakin batzuetan jasaten dituzten jazarpen eta diskriminazio egoerak dira haien arteko lotura nagusia. Bost zatien bidez, McQueenek 1960ko hamarkadatik 1990eko hamarkadara luzatzen den arku kronologikoa marrazten du.

Italia: «La meglio gioventù»

Azken geldialdia Italian egingo dugu, oso berezia (eta bakarra) den obra bat aipatze-



ko: “La meglio gioventù”. Italiako familia baten historia azaltzen duen telesail laburra da, 60ko hamarkadatik 2003. urtera arte zabaltzen dena. Denborak sakonera ematen dio kontakizunari, pertsonaien eraldaketa kokatzen du

eta Italiako historia kolektiboa ehuntzen duen nerbio zentrala bihurtzen da.

Ia lau hamarkadatan zehar garatzen den narrazioak aukera ematen digu Nicola (Luigi Lo Cascio) eta Matteo (Alessio Boni) anaien eta haien

ingurukoen bilakaera ikusteko, Italiak une historiko esanguratsuak zeharkatzen dituen bitartean: Florentziako 1966. urteko uholdeak, 1968ko matxinadak, berunezko urteak, 70eko hamarkadako erreforma psikiatrikoak eta abar.

Horren emaitza balantze narratibo delikatua da, erredukzionismo politikoak saihesten dituen, baina aldi berean denbora indibidualaren eta denbora publikoaren arteko ispilu-efektua nabarmentzen duena.

EUSKAL UDALEKUAK

50 urtez haurrentzako euskarazko aisialdia posible dela erakusten

Udan, euskal kultura eta naturaren aldeko baloreak ardatz, euskaraz eskaintako haurrentzako aisialdia posible da Euskal Udalekuei esker. Duela 50 urte baino gehiago hasi ziren, Abaigarren 2024an bete zutelako mende erdia eta aurten Bernedon igaro dutelako muga hori. Goñin, Nafarroan, beste etxe bat daukate.

Mikelsa Etxebarria Bernedoko militante eta Euskal Udalekuetako komunikazio ardurako kideak GAUR8ri azaldu dionez, proiektu autogestionatua dugu hau, «gaur egungo aisialdiari buelta eman» nahi diona, euskarazko aisialdi alternatibo bat eskaintzeko, eta 7 eta 17 urte bitarteko haur eta gazteei zuzendutakoa.

Izaera autogestionatu horrekin batera, jolas edo gozamen hutsean oinarritzen ez diren udalekuak dira, Etxebarriaren esanetan. Izan ere, «balore jakin batzuk transmititzeko eta politika egiteko beste era bat» dira, betiere euskara, natura eta Euskal Herriko kultura ardatz hartuta.

Euskal Udalekuen ezaugarri nagusietako beste bat lan boluntarioa da, urte osoan zehar egindakoa. Uda sasoian hurrekin hamaika txanda egin ohi dituzte Bernedon, Abaigarren eta Goñin. Ikasurtea hasten denean, aldiz, etxeak konpontzen dituztela eta bulego lana egiten dutela azaldu du Mikelsa Etxebarriak.

Udaldietan, beraien lana dela-eta lagundu ezin dutenek, bestalde, «beste era batera eskaintzen dute laguntza, propaganda egiten edo

 **JENDARTEA /** Alaia SIERRA ALDEKOA

Mende erdia bete dute Euskal Udalekuetako Abaigarreko eta Bernedoko etxeek. Hasieratik haurrentzako aisialdia udan ere euskaraz eskaintzea izan dute helburu. Begiraleen eta beste langileen lana beti boluntarioa da eta, hainbeste urtetako historiarekin, behinola haur zirenak guraso edo begirale dira gaur egun.

kartelgintzan; udaldietan guk egin ezin ditugun gauzak egiten, alegia».

Txandak, gehienetan, 15 egunekoak izaten dira eta bakoitzean 60 eta 100 haur bitarte elkartzen dira. Egun tematikoak egiten dituzte; pertsonaia historikoei buruzkoak, esate baterako. Horrela, bide batez, haurren jarrerei buruz hausnarketa egiten dute, errespetuan oinarritutako baloreak transmitituz.

«Guretzat haien iritzia garrantzitsua da», dio Etxebarriak hurrei buruz. Hori dela eta, eguna igerilekuan, jolasen eta ikasten pasatu ondoren, afaldu eta gaubeila eta asanblada egiten dute haiekin. Asanbladan, hurrei haien emozioak partekatzeko aukera ematen zaie, begiraleek «ahotsak entzun» ditzaten, «hurrengoetarako kontuan hartzeko».

«Hori guztia gure artean kudeatzen saiatzen gara», baina ez dakitenean nola egin, hezkuntzako adituengana jotzen dute. Mikelsa Etxebarriak azaldu duenez, udalekuetan aritzen direnen ezagunen artean boluntario berriak bilatzen dituzte, bai eta haientzako formakuntzaren bat emateko prest dauden pertsonak ere, kasu askotan «espazio akademikoagoetan».

SARE BAT

Horrela, «lagunen eta ezagunen arteko sare baten bidez», hain zuzen, sortu zen Euskal Udalekuen egitasmoa duela 50 urte. Hala azaldu du Aitor Zubizarretak, sorreratik Euskal Udalekuetan ibilitakoak.

50. urteurrena ospatzeko udaldiaren hasieran Bernedoko etxean egindako jaialdia.
EUSKAL UDALEKUAK

Ikastolen mugimenduarekin batera sortu zen udarako eskaintza hau, euskaraz zekiten haurrak udan zaintzeko aukera bat izateko, batetik, eta haiek aisialdirako euskarazko aukera bat izan zezaten, bestetik. Zubizarretak dioenez, uda heldzen zenean urtean zehar ikastoletan egindako aurrerapena galtzeko aukeraren aurrean sortu ziren.

Hasieran, hainbat adinako haurrak txanda berean elkaritzen zituzten, baina neskak eta mutilak banatuta egoten ziren. Beireko etxea Lehen Hezkuntzako haurrentzat lortu baino lehen, Azazeta eta Barrian pasatu zituzten udak. Nagusiagoak zirenak Erriberri ondoko etxe batera eramaten zituzten, eta garai bateko OHoko (Oinarriz-



ko Hezkuntza Orokorra) 7. eta 8. mailakoak eta 16 urte artekoak Abaigarren egoten ziren.

Etxeak lortzea eta egokitzea beste erronka bat zen, lan hura ere boluntarioa izan zelako. Aitor Zubizarretak gogoratu duenez, ikastolen mugimenduak elizaren babesa zuen eta etxe batzuk apaizgaitegiak izandakoak ziren; Saturraranen izan zuten horietako bat, kasu.

Besteak, orain erabiltzen direnak barne, eskatutakoak eta utzitakoak dira. Bernedokoa herriko eskola izandakoa da, gaur egun egokituta dagoen arren, eta Goñikoa, al-diz, urtero atontzen joan ziren baserri handi bat da. Abaigarrekoa, bestalde, Beireren jarraipena egiteko hartu zuten, baina azken hamar

Sorrerako helburua, euskara bultzatzea, mantentzen dela uste du Mikelsa Etxebarria kideak, baina feminismoa eta antzeko baloreak ere lantzen dituzte gaur egun

Aitor Zubizarretak hasieratik parte hartu du udaleku hauetan eta, bere ustez, berezia da behin haur izandakoak begirale eta guraso bihurtu direla ikustea

urteotan berrikuntza handia izan du.

«Azpimarratzeko» aldaketa handi bat nabaritu du Aitor Zubizarretak 50 urte hauetan atzera begiratuta. Hasieran euskaraz zekiten pertsonak, beraien ogibidea edozein zela, aritzen ziren begirale gisa, baina gaur egun «izugarrizko formakuntza» duten boluntarioak elkartzen dira.

Horri esker, planteamendu pedagogikoan ere aldaketak egon dira. Gainera, parte hartzen dutenak beraien opor garaian udalekuetan aritzeko prest dauden pertsonak direla nabarmendu du Zubizarretak. Horietako batzuk 'miloak' izenekoak dira. 'Mil oficios' (mila lanbide) gaztelerazko esamol-detik dator izena, sukaldean, garbiketan edo behar den tokian laguntzeko prest egoten direlako.

BELAUNALDIEN ARTEKO ERRELEBOA

Hainbeste urtetako historiak pasadizoak eta istorio politak dakartza berarekin. Aitor Zubizarretak azaldu duenez, behinola haurrak izandako asko geroago, nagusitzerakoan, begirale ibili dira. Are gehiago, hasierako txanda haietan ibilitako haur batzuk udalekue-tatik igaro diren haurren gurasoak dira.

Belaunaldi askotako historiari esker, haur eta begirale

Hamarkada hauetan zehar Euskal Udalekuetan parte hartu dutenak elkartzeko balio izan zuen ospakizunak. EUSKAL UDALEKUAK



asko ezagutu ditu Zubizarretak. «Horrek atentzioa eman dit beti», adierazi du Euskal Udalekuetako kide honek: udan ez ezik, urte osoan zehar eta, kasu askotan, urteetan zehar ere mantendu diren harreman asko sortu dira udalekuetan.

URTE OSOKO LANA

Uda hasi berri da, baina irailetik lanean aritu dira Euskal Udalekuetako kideak. Hain zuzen ere, Mikelsa Etxebarriak azaldu digunez, udaldiko lehenengo egunean «dena eginda egoteko» materiala prestatu behar izan dute eta etxeen mantentze-lana egin, besteak beste. Horrekin batera, formakuntzarako asteburuak ere izan dituzte, udako balorazioa egiteko, proposamenak aurkezteko eta hausnarketa egite-

ko, eta ondoren, produkzio fasean sartu ziren.

Aurtengo prestaketa berezia izan da. Izan ere, urteurrena dela eta, udari hasiera emateko, jaia egin zuten Bernedon ekainaren 14an, «memoriatik, gozamenetik, euskaratik eta feminisмотik» egitasmoa ospatzeko eta, bide batez, urteotan guztiotan udalekue-tatik pasatu diren militanteak elkartzeko.

Beraz, urtero-urtero euskaraz ondo pasatzeko aukera bat izateko helburuarekin jaiotako proiektuak bilakaera nabarmena izan du. Etxebarriaren hitzetan, «alde batetik, eginkizun bera betetzen du, baina gaur egun, egoera soziala bera aldatu denez, feminisмотik edo naturarekin dugun harremanaren inguruan» jarduten dira.



**Fernando TREBOL UNZUE**

Psikologiako doktorea

Garunaren oinarritzko babesa

Dugun pisu emozionala ondo identifikatu beharra dugu. Gure emozioek gure energiarekin lotura zuzen bat dute, hori jakitea oinarri nagusia litzateke. Mugak ezartzeko garaia haurtzaroa da, eta Haur Hezkuntzako adituek adierazten dituzten muga horiek hezigarriak dira, baina ezin da bakarrik eskolaren esku utzi, familia giroan egin behar da hasieratik, eskolako adituekin koordinatuz eta eskolaz kanpoko ekintzetan ere bai. Gizataldea (tribua) behar da pertsona baten heziketa burutzeko.

Zer ulertu behar dugu muga gisa? «Mugak ez dira arauak, ez dira legeak, heziketa bultzatzen duten horiei ‘muga’ deituko genieke. Mugak behar-beharrezkoak dira bizitzaren parte direlako. Une oro eta espazio guztietan, zer egin dezakegun, eta zer ez, esaten digute; ezagunak izango direnak eta lasaitasuna transmitituko digutenak; horrela poliki-poliki haurra bere ekintzen ardura zehatzak bereganatzen joango da», “Vivir significa estar limitado” liburuan Rebeca Wild-ek adierazten duenez.

Beraz, esan dezakegu mugak pertsonen bost urte izan baino lehen esleitzen zaizkigun ardurak direla; jaiotzetik dakargun giza diseinua hezitzeko behar dira muga horiek, baina ez eredu bat ezartzeko, ez dogma bati jarraitzeko, norberak dakarrena garatzen ikasteko baizik. Horrela dio Lynda Bunnell-ek “Diseño humano/Giza diseinua” argitalpenean.

Bestetik, gazte garaian indartu eta heziketarekin hornitzen direnak dira muga horiek, betiere afektu harremanetatik datozenak, hasieran familiaren bidez, eta gero lagunek eta bikotekideak pertsonaren auto-kontzeptua osatuko dute. Ardurak izan dituen pertsonak bere bizitzan erabakiak hartzen jakingo duela baieztatu daiteke; txikitatik ardurak izan dituen pertsonak, bere zereginak betetzean, mugak non dituen eta non dauden ikusiko du. Hori da garunaren babes oinarri na-

gusia. Gurasoek ez dute haurren heziketaz kezkatu behar, arduratu baizik.

Muga osasuntsuak ezarri behar ditugu, ez besteengandik babesteko edo besteak aldentzeko, baizik eta norberaren barne bakea (oreka, esan genezake) babesteko. Norbere burua hezteko beharrezkoak diren zereginak izan behar ditugu, etxean, eskolan, elkarteetan, lagunaren arteko ekintzetan, lantokian, aisian eta bizitzako eremu guztietan.

Ezer egiten ez duen pertsona, ardurarik ez duena, babes burbuila batean egongo da, baina ez dio ezertarako balioko. Aldiz, emozioak bizi eta zereginak burutzen dituen pertsonak, horrek badu burbuila bat, baina bere energia positiboaz beteta. Burbuila energetiko baten gisara ulertu behar dugu hori; babestua egoteko balioko du, besteen hitzak eta energia nabaritzen, baina haien eragina jaso gabe, gure ongizatea babestu behar dugu.

Gure ongizateak inporta duelako, gurekiko errespetua da helburua, beste pertsonen gure energia “xurgatu” nahi izango balute bezala jokatzeko badute ere. Inkontzienteki

egin dezakete, baina besteek bilatzen duten gatazka, sinpatia edo oniritziaren aurrean, elkarrekatzerik ez badiegu ematen, haien jokabidea aldarazi diezaike horrek. Besteen jokabidea aldatzea ez da, beraz, helburua. Orduan konturatzen gara guregan duen eragina, besteen jokabideekin erreakziorik ez izatea erabakitzen dugunean. Biziko ditugun emozioei mugak jartzea erabakitzen dugunean, gure barneko bakea indartzen da.

Izan ere, benetako aldaketa ez da besteak eraldatzea, gure burua aldatzea baizik. Gure transformazioa burutzen da une horretan; besteek gurean eredu izango dute, eta haiek nahi dutenean aldatuko dira, bidea erakustea nahiko da, txikitatik mugak eskainiz, ardurak emanez, pertsonaren garuna eraikiko da, eta gainera oinarritzko babes sendo bat izango du. •



Ilustrazioa: FERNANDO TREBOL UNZUE

{ koaderno } Iker BARANDIARAN

Iluntasunetik babestu

Gau erdian, lo seko nengoela, seme txikia etorri zait ohera. Lo ezinean, urduri, babesa behar zuen. Nire ondoan segidan lozorro gelditu da, baina neuk, ordea, loa galdu dut erabat. Gorroto dut lo ezaren nekea, baina aita izatearen eginkizunetako bat hori da, ahal den guztietan haiei laguntzea ageriko ordain gabe bada ere. Azkenean ohetik jaiki eta irratia piztu dut. Eta, hara! Esatariari entzun diot euskaraz esaten Bruce Springsteenek Donostiako kontzertuan oso hitz gogorrak esan zituela. Asaldatu egin naiz. Hitzak baino –horiek eta gehiago merezitakoak baitira– gogorragoak dira, askoz ere gogorragoak, munduko leku ugartan askok eta askok dituzten egoera latzak, eta badirudi horiek benetan gertatzeak (eta nolabait baimentzeak) ez gaituela hainbeste asaldatzen; bai, ordea, norbaitek gertaera lazgarriak

«Eskuma eta ultraeskuinak, botoetan izugarri gorantz egiteaz gain, hori baino gehiago lortu duelako: lehen pentsaezinak ziren muturreko pentsaera edo adierazpen ugari gizarteak normaltzat hartzea»

mahai gainean jarri eta salatzeak. Antza denez, sionisten (eta AEBetako lobbyen) pozoia barruraino irentsi-ta daukagu. Beldur handia ematen die hitzak.

Gainera, munduko leku askotan, hurbileko zein urrunekoetan, halako gupidagabekeria eta zabarkeriak ikusita, hainbeste txar-txarren artean, badirudi soilagoa eta ez hain agerikoa dena azkenean ona bilakatzen dela edo dugula. Dugula, esango nuke, geu ari garelako pertzepzioa aldatzen. Adibidez, nazkatu egin nintzen hainbeste jenderi Frantzisko delako aita santua oso ona izan zela entzuten. Hori pentsatu eta esanda ahaztu ei dugu gizon horrek ordezkatu eta gidatu izan duen Eliza Katolikoak egin izan duen eta

oraindik ere egiten duen txikizio, inposizio eta kalte guztia. Aibala! Iraganean norbait justua (halakorik balego), zintzoa edo legala zela esateko neurria erabat lausotu eta mugitu dugu, ia ohartu gabe, nabarmen eskumarantz. Norantz, bestela?

Zergatik? Bada, eskuma eta ultraeskuinak, botoetan izugarri gorantz egiteaz gain, hori baino gehiago lortu duelako: lehen pentsaezinak ziren muturreko pentsaera edo adierazpen ugari gizarteak normaltzat hartzea. Munduan, oro har, joera hori dago, eta, esaterako, Espainiako Estatuan eman dena bere horretan ezagutzeko, bada liburu apropos bat. “Malismo” izena du liburuak eta Madrilen aspaldi bizi den Mauro Entrialgo marrazkilari eta sortzaile gasteiztar ezagunak idatzi du. Ederto deskribatu eta zerrendatzen ditu Espainiako Estatuan eskumak azken hamar urteetan zabalduetako mezu oldarkorrak.

Aspalditxo idatzi nuen orriotan Euskal Herrian ultraeskuina, oraindik boto ugari eskuratzen ez baditu ere, poliki-poliki ari dela bere printzipio eta mezuak gure gizartean zabaltzen eta, ondorioz, izugarriko astakeriak diren gezur eta usteak normalizatzen dihardugula. Hori botoak eskuratzea baino garrantzitsuagoa

da, lur eremua epe ertain eta luzerako ereiten dabilelako. Oinarri jakin batzuk galduz gero, siglek ez dute inongo garrantzirik izango; egon ziur.

Oraina hain iluna bada ere, ez da itxaropena galdu behar. Horretarako, irakurri, informatu eta komunitatean antolatu. “*Hijos del Brexit. Nueva escena musical en las islas británicas*” liburuak, esaterako, erakusten du arlo ekonomiko, sozial, afektibo zein politikoan ofentsiba neoliberalarekin etsita dagoen gazteria ari dela hori irmo salatzen eta borrokatzen. Auskalo hemengoek, gurek, zer egingo duten, baina jakin dezatela alboan izango gaituztela informatzeko, laguntzeko eta babesteko.

«Betaurreko moreak bezala, euskararen betaurrekoak ere beharrezkoak dira hezkuntzan»

Urrian aurkeztu zuten Hernanin Gu Geok plataforma. Kezka batetik sortu da: «euskararen erabilera moteltzen» ari dela, «euskararen inguruko kontzientzia lausotzen» eta «euskal kulturaren transmisioa apaltzen». Kezka garrantzitsua eta partekatua, ez alferrik herriko ikastetxe guztiak batzeko indarra izan du: Aratz ikastola, Elizatxo ikastola, Hernani BHI Institutua, Hernaniko Haur eskola, Langile Ikastola, Txirrita ikastetxea eta Urumea ikastola.

Kezkan eta hausnarketan geratu gabe, dekalogo bat aurkeztu zuten hartu beharreko neurri zehatzekin eta horren gainean aritu dira lanean ikasturte osoan. Aurkezpenean nabarmendu zuten, «hezkuntza komunitate guztiari dagokio –irakasle, hezitzaile nahiz guraso– euskalduntze prozesuaren eragile aktiboa izatea. Guztiok gara euskara irakasle eta euskararen biziberritzean eredu izateko ardura daukagu ikastetxeok»

Ikasturte amaiera hau garai egokia izan daiteke balantzea egiteko, egindako bidea errepasatu eta aurrera begira egiteko dagoena begitantzeko.

2024ko urrian aurkeztu zuten Gu Geok plataforma. Ikasturte bukaera da eta notak jarri behar dira. Zein indargune eta ahulgune identifikatu dituzue?

[Nuria Barba] Nik, indargune bezala, atzetik zetorren batasuna nabarmenduko nuke; Hezkuntza Plataformak bideratuta, Hernaniko ikastetxe

guztien arteko harremana. Hori oso positibotzat baloratzen dugu. Hasieratik egin dugu denok bat, lehen bileraren deialditik bertatik. Proiektua martxan hasi zenetik ikastetxe guztiek parte hartu dugu eta niri iruditzen zait funtsa izan dela plataformak aurretik eginda zeukan lana. Hernaniko ikastetxe guztiak proiektu honetan elkartzea ez da izan zerotik hasia, aurretik bidea egina zegoen. Hori bere horretan bada indargune bat.

Bestalde, egindako hausnarketak nabarmenduko nuke. Ikastetxe bakoitzak bere hausnarketa egin du dekalogo bate ahal izateko. Eta dekalogo osatzeko, bakoitza bere hutsune, arrisku eta gabezietatik abiatu da. Hasieratik helburua oso garbi izan dugu eta erraza izan da indarrak batzea.

[Laida Lizarribar] Berez, herriko ikastetxe guztiak elkartzea bera oso gauza garrantzitsua izan da eta ikasturte amaieran proiektu honetan elkarrekin jarraitzea oso positiboa da. Hortik abiatuta, gero bakoitzak berera eraman du, bere errealitatea aztertu du eta askatasuna izan du handik edo hemendik hasteko, hau edo bestea egiteko. Institutuen edo haur-eskolen errealitatea guztiz desberdina da. Guk haur-eskolan haur txikiak dauzkagu, baina familia batzuek hezkuntza sistemarekin eta euskararekin daukaten lehen harremana bertan ematen da. Hori oso presente daukagu. Lehen Hezkuntzan ikastolek beste errealitate bat dute. Beraz, ikastetxe bakoitzak dekalogo hartu eta norbere errealitateira moldatu du; gu he-

mendik hasiko gara, indargune hauek ditugu, muga hauek... Bakoitzak askatasuna izan du berera ekartzeko proiektua eta bakoitzaren erritmoak eta errealitateak errespetatu dira.

Abiapuntu, erritmo eta errealitate desberdinak, baina kezka partekatu bat.

[L.L.] Galdeketa bat banatu zen irakasleen artean, kezka eta gabeziak identifikatu nahian. Eta horien artean nabarmendu zen euskararekiko atxikimendua landu beharra. Ez da bakarrik euskara ezagutzea, baizik eta atxikimendua lortzea. Euskara ez da hizkuntza bat gehiago, gure hizkuntza da, eta horretarako ezagutu egin behar da euskarak zer bizi izan duen eta zer bizi duen. Sumatzen genuen ez dela ezagutza bakarrik transmititu behar, soziolingustikaz ere hitz egin behar dela.

Lurraldetasunaren gaia ere garrantzitsua da; Euskal Herria esaten dugunean, zertaz ari gara? Batzuetan Euskal Herriaz ari garelakoan, agian Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabak osatzen duten erkidego administratiboaz ari gara. Irudikatu eta ikusarazi nahi dugu Euskal Herria, lurraldetasuna presente izanda.

[N.B.] Plataformaren helburu nagusiak dira euskararekiko atxikimendua indartzea eta euskal kulturaren transmisioan lan egitea. Hortik abiatuta, Euskal Herriaren kontzeptua indartzeko beharra ere ikusten genuen, ikusten genuelako pixka bat lausotzen ari dela. Hiru ideia nagusi horien bueltan sortu da plataforma, kezka partekatu batetik.

LAIDA LIZARRIBAR BASURTO ETA NURIA BARBA OJUEL

GU GEOK PLATAFORMAKO KIDEAK

Hernaniko ikastetxe guztiak batu dira Gu Geok plataforman, kezka partekatu baten jiran: euskararen moteltzea eta euskal kulturaren kontzientziaren apaltzea.

**Hezkuntza komunitate beza-
la ardura bat hartzeko kon-
promisoa sumatzen da.**

[N.B.] Bai, badago ardura. Uler-
tzen dugu hezkuntzaren ba-
rruan euskara ez dela bakarrik
euskara irakasten duen irakas-
learen ardura. Dena da, zehar-
lerroa da.

[L.L.] Institutuko irakasle ba-
tek aipatu izan duen bezala,
betaurreko moreak jantzi
behar izan ditugun bezala edo
janzten ari garen bezala, eus-
kararen betaurrekoak janztea
ere beharrezkoa da, eta irakas-
le guztiok jantzi behar ditugu.
Zehar-lerro bat izan dadila, ez
dadila euskarako irakaslearen
esku bakarrik gelditu.

**Euskararen betaurrekoak,
kontzientzia hartzeko, ezta?**

[N.B.] Bai. Eta, nire ustez, hain
justu, oso positiboa izan da
kontzientzia hartzeko balio
izan digula dekalogoak. Ba-
tzuetan gauzak aztertzen has-
ten zarenean, eta eskoletan
egiten dena behatzen, kontu-
ratzen zara errealtatea gauza
bat zela uste zenuela eta bene-
tan beste gauza bat dela. Beha-
keta horrek balio izan digu
kontzientzia hartzeko eta zo-
rrotzago begiratzeko egunero-
ko jardunari.

[L.L.] Langile Ikastolako LHko
bosgarren eta seigarren maile-
tako ikasleekin Hernaniko
euskararen ezagutzaren eta
kale erabileraren datuak azter-
tu dituzte, adibidez. Hor kon-
tzientzia bat ematen da, uste
duzunaren eta benetan dena-
ren artean. Hezkuntza komu-
nitate osoak egin beharreko
ariketa kolektiboa da.

**Plataformaren aurkezpe-
nean, ñabardura garrantzi-
tsua egin zenuten testuingu-**

*«Plataformaren
helburu nagusiak
dira euskararekiko
atxikimendua
indartzea eta euskal
kulturaren
transmisioan lan
egitea»*



Argazkiak: Jon URBE | FOKU

**ruaz: «elebitasun orekatu ba-
tean biziko bagina bezala».**

[L.L.] Nik uste dut askotan eus-
karaz ari garelakoan, erdaraz
ari garela. Euskaraz hasi esal-
dia, lauzpabost hitz euskaraz
esan, baina erdaraz jarraitu.
Horrekin konturatzea garran-
tzitsua da. Eta euskaldun beza-
la ahalduntzea. Euskaldun iza-
tearen kontzientzia indartu
behar dugu.

Eta, bestetik, oso garrantzi-
tsua iruditzen zaigu gure haur
eta gazteek euskaraz egiten du-
ten erreferenteak izatea; jen-
daurrean euskaraz egiten du-

ten musikariak, kirolariak,
idazleak, aktoreak... Testulibu-
ruetan agertzen diren errefe-
renteak ere garrantzitsuak dira;
zein agertzen dira? Zein mapa
irudikatzen dira? Zer egin asko
dago eta eremu askotan.

**Euskal hiztun aktiboak sor-
tzeko beharra ere nabarmen-
tzen da zuen dekalogoan.**

[N.B.] Bai, hori da kezka nagu-
sietako bat, euskararekiko
atxikimendua nola sortu, nola
transmititu hizkuntzarekiko
harrotasun hori. Marko horre-
tan kokatzen da gure kezka.

**Gu Geok plataformaren deka-
logoa eskutan, zer nolako
ekimenak bultzatu dira ikas-
tetxeetan?**

[N.B.] Adibidez, Elizatxo ikas-
tolan familia eta ikasleekin
euskal kantutegi bat osatu
dute eta euskal idazleak eka-
rri dituzte ikastolara LHko
bosgarren eta seigarren mai-
letan. Hori erreferenteak lan-
tzeko beharrarekin lotzen
dugu.

Langile Ikastolan Hernaniko
soziolinguistikako datuak az-
tertu eta konpromiso batzuk
hartu dituzte. Egoeraz jabetze-



ko eta kontzientzia hartzeko bidea izan daiteke.

Aratz ikastolan materialgintza eta testuliburuak aztertze-ko lana hartu dute.

Txirritak elkarbizitza eta kulturantzatasuna hartu ditu ardatz eta oso gauza politak egin dituzte bertan. Adibidez, ‘ongi-etorri’ hainbat hizkuntzatan eman dute, ikasleen familietan hitz egiten diren hizkuntzetan.

Haur-eskolan ostiralero hezitzaile bat arduratu da euskal musikari edo euskal musika talde bat ekartzeaz: sarreran jartzen dute musika, familiak sartzen diren bitartean, haiek entzun eta interesa pizteko. Aukeraketan, hezkidetzatza eta lurraldetasuna kontuan hartzen dituzte, gainera.

Urumea ikastolan, ikasleek euskal musikaren inguruan duten ezagutza zabaltzeko asmoz, hamabostean behin euskal kanta bat proposatu da eta gelan adinari egokitu-tako ekintzak egin dira. Eta lehen hitza euskaraz egitera animatu dituzte familia guz-tiak.

Institutuan euskal kulturako erreferenteak ekarri dira ikas-tetxera eta sendabelarren eta ondarearen inguruko lanketa egin dute.

Eta, bestetik, Udalaren la-guntza izan dugu eta UEMAK eskaintzen dituen formakun-tzak ere jaso ditugu, bai gura-soek, bai irakasleek.

Ekonomia arlora etorrita, Hernani Burujabeko eredu-a kontuan hartuta, euskara, Eus-kal Herria eta burujabetasuna landu dituzte Batxilergoko ikasleekin.

Hezigune bakoitzak berera ekarri du dekalogo-a, baina ekintza bateratu bat ere abia-tu duzue zentro guztietan.



[N.B.] Bai, Euskal Herriko ma-pa jarriko dugu Hernaniko ikastetxe guztietan, sarreran, bertso batekin batera.

[L.L.] Akaso oso gauza xumea edo bistakoa iruditzen zaigu, baina ikusten dugu beharrez-koa dela Euskal Herriaz ari ga-renean zeri buruz ari garen go-goraztea. Zazpi herrialdeez ari gara eta garrantzitsua ikus-ten dugu lurraldetasunari kon-tzientzia eta lekua ematea. Adi-bidez, matematikan ariketak egiteko adibideak jartzen ditu-gunean, Uztaritz edo Burgi ai-patzea garrantzitsua izan dai-teke, edo Lapurdiko biztanleen portzentajeak kalkulatzeko. Lehen aipatu ditugun betau-rreko horiekin aritzea garran-tzitsu jotzen dugu eta hortik, Euskal Herriko mapa jartzeare-na. Euskaraz ari gara eta ea de-nok irudikatu dezakegun zein den euskararen herria.

«Garrantzitsua da euskara defendatu eta beste hizkuntzekiko errespetua agertzea. Garbi ikusten dugu pertsonoi, oro har, zer gertatzen zaigun gure jatorri, kultura eta hizkuntzarekin ikusiak izateko aukera daukagunean»

Herriaren egoera soziolin-guistikoa asko aldatu da az-ken urteotan, kulturantzatu-na eta hizkuntza aniztasuna oso presente daude.

[L.L.] Bai. Garrantzitsua da eus-kara harrotasunez defendat-zea eta beste hizkuntzekiko jakin-mina eta errespetua agertzea. Azkenean bestea iku-sia sentitzen denean, zureare-kiko interesa ere sortzen zaio. Eta alderantziz. Nik uste dut hori oso kontuan hartu behar dugula.

Haur-eskolan askotan ikus-ten dugu hori. Familia asko-rentzat euskararekiko lehen kontaktua da eta gu saiatzen gara haien hizkuntzara gertu-ratzen; agurra nola egiten du-ten, ‘ama’ nola esaten duten... Hor oso garbi ikusten dugu pertsonoi, oro har, zer gerta-tzen zaigun gure jatorriare-kin, kulturarekin eta hizkun-tzarekin ikusiak izateko

aukera daukagunean. Jarrera kontua da. Haur-eskolan gu-raso askok esaten dute ‘kaixo, agur, eskerrik asko, eman muxu...’ nahiz eta beren etxe-ko hizkuntza ez izan euskara.

Datorren urterako etxeko-la-nak buruan al dauzka Gu Geok plataformak?

[N.B.] Dekalogoan sakontzen jarraitu beharko dugu ikaste-txeetan, zer egin asko dagoela-ko. Eta, bestetik, aurrera begira egin beharreko pausoa, agian, begirada zabaltzea da, hezkun-tza komunitate osoari eta he-rriari zabaltzea ekimena eta esku artean daukagun haus-narketa kolektibo hau. Ikaste-txeetan lanean jarraitu, deka-logoan sakondu, eta begirada herrira altxatu. Eta, azkenik, aurrera begira, Hernanin hasi dugun bidea Euskal Herriko beste herrietara zabaltzea ga-rrantzitsua litzateke.

LUR AZPIKO ABENTURAK



iRRITZIA:



Amaia
Ballesteros

Hemendik aurrera gari

Itzea URKIZU ARSUAGA

Su itzali berriaren usaina sartzen da leihotik, hau idazten ari naitzen bitartean. Desordutan nabil, nahiz eta urteko gaurik motze-nean ordu guztiak izan ederrak. Mistizismotik hurbilen kokatzen nauen urte garaia da udako solstizioarena, erritu horietan eta erritu horiez bustitzeko behar handiena sentitzen dudana aroa.

«Agur, egun zoragarria». Horrela agurtzen dugu ekainaren 24a, Tolosan, bezperako gauean eta eguna amaitzen duenean. Eta, hitz horiek diotenari kasu eginez, halaxe bizi izan dut beti egun hori.

Txikitan, bordon dantzarietako eta eskopetarietako jarraikak, folkloreak lepo; eskerrik asko, aita eta ama. Gaztetxotako, txilibitia joz edo eskopetariz desfilatzen. Geroxeago, bordon dantzariz lehenengoz eta

bigarrenengoz eta ez dakitzen bigarrenengoz, barrua lehertzearekin. Ama izan ondoren, dantzan berriro, nire gorputz eta izate eraldatu hori lehengo lekura bueltatu zelako hunkituta.

Hori dute errituek, usadioek: intentsitate izugarria hedatzen dute beraien inguru hurbilean, ohitura horiek gorputzen dituztenengan. Baina, pixka bat harago daudenek akaso ez dute usaindu ere egiten tradizio horren su itzali berriaren kerik. Ez dakite surik badenik ere.

Baina, sua, bada. Hau idazten ari naitzen bitartean leihotik sartzen da Tolosako baserrietako su itzali berrien ke usaina, desordutan. Usain horrek narama nire oroitzapen gozonenetako batzuetara, San Joan goizeko egunsentian, dantzako lagunekin ihintzaz bustitako lizarra moztzen, Urkizun edo Montezkuen edo

Belauntzan, asmatu nahian mendiari darriona behe lainoa edo bezperako suaren ke arrastoa, bietako zer ote den. Su itzali berri horien ke usain horrek narama urtero berritzen den ororen soka magikorra; ur-berritzen diren ohitura horien guztien zentzura. Tradizioak gorputzeko, bizitzeko eta sentitzeko grina horretara.

Su itzali berrien ke usainak narama fosilak ahaztera eta ohiturak pertsonaz, belaunaldiz eta garai bakoitzari dagozkion ezaugarriez betetzeko gogora. Su berriak pizteko aukerak sortzera. Aurten, lehenengoz, jantzi berarekin dantzatu dugu guztiok Tolosako Bordon dantza, genero-markarik gabe. Su txiki hori bada nahikoa aitzakia, ekainaren 24 goizaldean desordutan hasitako testu hau ekainaren 28ko aldarrikapenetara ekartzeko. Agur, egun zoragarria. •

47. artikulua estoldak

Miren AZKARATE
BADIOLA

Espainiako Konstituzioaren 47. artikulua dio espainiar guztiek dutela etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea, eta botere publikoek esleitzen die horretarako baldintzak sustatzeko eta eskubide hori gauzatzeko behar diren arauak ezartzeko betebeharra.

Ez naiz ni izango Konstituzio artotz horrek esaten duena meneko hartzekoa, baina, hala ere, hitz ponpoxo eta polit horien atzean istorio eta erpin asko topatu ditzakegu. Etxebizitzaren prezioa edo laguntza gabe etxebizitza duin bat lortzea, adibidez. Drama bila-

katu den gaia da, batez ere gazteen-tzat.

Baina beste erpin bat ere bada, hitz larritan idatzitako drama: gero eta gehiago ematen ari diren etxegabeteak, hain zuzen ere. Nola izan daiteke inor gai horrelako zerbait agintzeko eta betetzeko? Normalean pertsona zaurgarri osatutako familiak izaten dira: helduak, haurrak dituzten familiak, ekonomikoki itota dagoen jendea... Eta, halakoetan, ardura politikoz eta enpatiaz jokatu beharrean, eta soluzio zibil eta baketsu bat bilatu beharrean, polizia bidaltzen duzu armak

hortzetaraino hartuta lan zikin eta biolento bat egitera?

Barkatuko didazue, baina ez zait buruan sartzen! Ertzain hori, edo dena delako gorputz polizial horietako kideak, lanetik etxera itzuli, bere haurra besarkatu eta haurrak «zer egin duzu gaur lanean, ama?» galdetzen duenean, zer erantzuten dio? «Indarrez, ostikoka, oihuka eta negarrez ateratu dut ama bat bi haur txikirekin haren etxetik». Zein aurpegirekin esaten diozu hori? Nola justifikatuko diozu, handitutakoan, hori zela zure «lana»? Ah, ez noski! Zu ertzaina, bai, baina trafikokoa edo bulegokoa! •



Vorigi Bitak arrazakeriaren aurkako ekintzailea, Bilboko Alde Zaharrean. Monika DEL VALLE | FOKU

Gazte-gaztea da, irribarre tsua bezain irmoa bere mezua agertzeko orduan. Tinko defendatzen du arrazakeriaren aurkako borroka, fokua umeek pairatzen dituzten egoeretan eta horiekin zerikusi handia duen hezkuntza sisteman jarrita. Arrazakeriaren kontrako aktibista gisa aurkeztu ohi du bere burua Vorigi Bitak, 21 urteko bilbotarrak. «Baina zer da arrazakeriaren kontrako borroka, bidegabekeria ororen aurkako borroka ez bada?». Aktibismo horren jatorriari buruz galde- tu dugunean egin du Vorigi Bi-

tak lehen hausnarketa hori. Bere aktibismoaren abiapuntuan ez dago bizipen edo gertaera zehatzik, naturaltasunez hazi den ezinegona dela dio, bere izaerarekin eta etxean edandako pentsaerarekin ere oso lotuta dagoena. «Nire ama aktibista da, eta azkenean era naturalean sortu da, berarengandik jasotako ikaspenetatik, bizi ditugun gauzetatik eta nire izaeratik, ni naizen modutik, oso aktibista bainaiz», kontatu dio GAUR8ri.

Ginean jaioa, bi urte ere ez zituenean heldu zen familiarekin Euskal Herrira, eta Bilbon bizi izan da orduz geroztik. Bilbotar, emakume arrazializatu, beltz, euskaldun eta aktibista

*in*fraganti **VORIGI BITA AKTIBISTA**

Vorigi Bitarena da arrazakeriaren aurkako borrokari Bilbon batu zaion ahots gaztea. Hezkuntza munduarentzat da bere lehen deia, eskola jazarpenaren aurkako protokoloak dauden bezala, arrazakeriaren kontrakoak ere eskatzeko. Ikasgaiak eta irakasleen prestakuntza egokitu behar dira, umeek indarkeria arrazista pairatzen baitute, eta mina piltzen baita. Kontzientzia hartzea eta aktibismoan jardutea askatzailea izan dela dio euskalginearrak.

gisa aurkeztu ohi du bere burua, eta azpimarratu du oso ginear sentitzen den euskal herritarra dela. Bilbon bertan ikasi du, eta orain unibertsitate ikasketak egiten ari da Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU). Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua egiten ari da, eta oso pozik dago aukeratutako formakuntzarekin. Hori ere ez da ausazko aukera izan, lan munduan eragin nahi du-eta, besteak beste.

Solasaldian aipatu du egiten dugun ea guztiaren atzean dagoela politika, eta berak ezkerren begiradan kokatzen duela bere burua, kapitalismoaren aurkako lubakian, sistemak berak ereiten baititu behar dituen desberdinkeriak, eta lur ongarrirua delako hori arrazakeriarentzat. Argi du Bitak kapitalismoak ereiten dituela desberdinkeriak.

Aktibismoarekiko joera hori helduarora iristearekin batera joan da eraikitzen, ahots propio bat sortzen, eta ondorioz Instagram eta antzeko sare sozialetara heldu dira Bitaren iritziak eta gogoetak. Baina ez arlo digitalera bakarrik: Bizipoza elkartearen deia erantzunez, esaterako, arrazakeria desera-

ki beharraz hitz egin zuen. Dioenez, bere aktibismoaren egoitza eta borroka espazioa kalea da, baina baita unibertsitate bera ere.

Azalaren koloreak kokatu du Bitak, XXI. mendean, espero ez zituen esperientzietan, Euskal Herrian, txikitatik eta eskolan bertan. Horregatik dio, dagoen potentzialtasunarekin, gauzak beste era batera egin ditzakeela Euskal Herriak.

Ume batek badaki azalen koloreak ezberdintzen, baina ez du bere burua ezberdin sentitzen, ingurukoek hala sentiarazten ez badute, behintzat. «Zurien herrietan heldu eta ume arrazializatuek bizi duten arrazakeria eskolan gertatzen da; hori izaten da lehen esperientzia. Zu ezberdin sentitzen zara eta ez dizute hazten uzten. Ezberdinak gara, baina gauza da ez dugula berdinak izan behar, ezberdintasuna babestea eta sustatzea dela gako», dio Bitak.

Hezkuntzan egin beharreko bidean jarri du azpimarra. Bere ustez, arrazakeriaren inguruko jarreretan berrikuspen sakon bat behar duen arloa da eskola, eta espazio estrategikoa da, gainera. Haurtzaroa-

ren zutabe nagusietako bat da familiaren ondoren, eta gainera, ordu asko ematen ditu haur batek ikasgelan, eskolako jolastokian, jantokian... Jarrera baztertzailleak ez direlako eskola eremutik kanpo geratzen. Bitaren iritziz, bide luzea du aurretik euskal eskolak jarrera, eduki eta egoera arrazistak ezabatzeke, eta irakaskuntzatik hasi behar da, ez bakarrik sentsibilizazioan, baizik eta arrazakeriaren kontrako formakuntzan sakonduz ere. Datu bat nabarmendu du: arrazakeria ez da jorratzen irakasle-ikasketetan. Eta bitxia da, baina adierazi duenez, ez da arrazakeriaren aurrean no-

la jokatu, zer egin edo nola irakatsi behar den gomendatzen duen materialik erabiltzen. Bestalde, eskolak kultura ezberdinak irakatsi beharko litzukeela uste du, munduari begiratzeko eta bizitza ulertzeko era anitz horiei erreparatzen dien eskola berri bat sortuz, non ikasi eta desikasi egin daitekeen, «hortik hasten baitira gauzak aldatzen». Eskola munduak pobretutako herriez zer dioen da planteatu duen beste galderetako bat. Egun irakasten den historiak eraikitzen jarraitzen duen kontakizuna berraztertutako egin beharko litzateke, Bitaren iritziz. Gogoratu duenez, ezagu-

na da herrialde aberatsek Afrikako baliabide naturalak esplotatu dituztela, baina hori ez da ikasgeletan espiritu kritiko batez jorratzen. «Gizarte batzuen garapena ez da baliabide horien ustiapen basatian oinarritzen?», galdetu du gazte bilbotarrak.

IRAKASTEN DEN HISTORIA

«Historia ikasteko erabiltzen dugun materialak benetako historia kontatu behar du; zeren eta Colonek ez zuen Amerika deskubritu, Amerika deskubrituta baitzegoen Colon hara heldu zenerako. Detale hutsalak ematen dute, baina horrelako gauzek narratiba

bat osatzen dute eta nahita egindakoa da». Gaztearen ustez, «sistemak arrazak behar» dituela kontatzen hasi beharko litzateke: «Europak arrazakeria behar du, bizitza kalitate mantentzeko, eta, Afrikako natura baliabideen jabeekin negoziatu beharrean, lapurtu egiten ditu horiek».

Bitaren hitzetan, «arrazakeria kapitalismoari lotuta dago. Arrazakeriaren aurkakotasuna antikapitalismoa da, nire ustez». Hari mutur horri tiraka, bazterkeriaren muinean sartan egoten den aporofobia agertu da. «Aurreiritziak dira, eta hori azkenean desinformazioa da», dio Bitak. Aditzera eman duenez, «diru asko daukazunean, badirudi zapalkuntza guztiak desagertzen direla». Eta azala edozein koloretakoa dela, jende askok bere pobrezia egoera eta zailtasun ekonomiko larriak erlatibizatzeke joera izaten du.

Aldi berean, bada ezabatzen den beste errealitate bat: Afrika oso kontinente aberatsa da, baina nork sortu du pobrezia Afrikan? «Afrikako baliabide natural asko hemen daude, eta horiei esker daude hemen gozatzen ditugun gauza asko, Afrikatik, Ameriketatik eta Asiatik datoz gauza asko... eta, hala ere, ni europar ere sentitzen naiz», dio irmotasunez. Ageriko bidegabekeriak identifikatu eta errealitatearen aurpegi horri aurrez aurre begiratzeari balego, begiradak aldatzen joango liratekeela uste du.

Txikitan heldu zen Euskal Herrira, Bilbon eman du bizitza osoa, baina azalaren koloreak jakin-mina pizten du sarritan. Dioenez, zuriak ez direnei baino ez zaie galdetzen birritan nongoak diren. Bitxia da, bere ustez, hori gertatzea



Vorigi Bitak, GAUR8rekin izandako solasaldian. Monika DEL VALLE | FOKU

zortzi abizen euskaldun dituzten herritarren ondoan industrializazioaren garaian Estatu espainoleko puntu askotatik etorritako jendea nahastenduen herri batean, non haietako asko «ez diren euskaldunak, baina ni beltza naizelako, birritan galdetzen didaten nongoa naizen. Hori arrazakeriaren beste adibide bat da», agertu du gazte bilbotarrak.

ZAPALDUEN KONTZIENTZIA

Begirada migrazioan pausatuz, GAUR8k planteatu dio ziu-rrenik ez garela egin beharko genukeen harrera egiten ari. Ados dago Vorigi Bitak: «Bilbo-ko herriak eta Euskal Herriak, oro har, gauza gehiago egin ahal ditu benetako harrera herria izateko. Egia da euskaldunek lan handia egiten dutela, herri zapaldua izanda kontzientzia handia dagoela eta gure alde borrokatzen den jende asko dagoela, eta guk ere haien alde egiten dugula, baina potentzial handia daukagu gauzak beste era batera egiteko, eta, esan dudan bezala, ikastoletan eta eskoletan zerbait egiten hasi beharko genuke».

Pentsa genezake, gainera, arrazakerian, adierazpen eta intentsitate ezberdinak egon daitezkeela. Bitak dio egia dela «egoera ezberdinak egon daitezkeela», baina «bera» dela sortzen duten «mina». Frantz Fanonen mezura jo du egoera azaltzeko: «Fanonek dio arrazakeriak indarkeria arrazista adierazten duela edozein egoeratan, ez dela egokia arrazakeria sailkatzea, arrazakeria txarra baita haren adierazpen guztietan». Indarkeria arrazista horrek umeengan duen eraginak kezkatzen du bereziki Bitak. «Hemen, Europan, oso babestuta dago



«Arrazakeria egoera ezberdinak egon daitezke, baina indarkeria dago guztien atzean, eta min bera eragiten dute», dio Bitak, fokua umeek pairatzen duten bortizkerian jarrita

«Europan oso babestuta dago haurtzarora, umeen eskubideak eta bizi kalitatea zaintzen dira, baina ume batzuek pairatzen duten arrazakeriari buruz ez du inork hitz egiten»

haurtzarora, umeen eskubideak eta bizi kalitatea zaintzen dira, baina ume batzuek pairatzen duten arrazakeriari buruz ez du inork hitz egiten. Ume zurien eskubideak besterik ez dago?», planteatu du. Il-do horretatik azaldu du zurien herri batean zuriak ez diren umeek bizi duten baz-

terkeriak «bizitza osoan jazar-tzen» dituela, sarritan gurasoen jokabideak errepikatzen dituztela hurrek eta haurtzarotik jasotako mina pilatzen joaten dela. Horregatik –dio Bitak– gizon arrazializatu asko haien buruarekiko mespretxu handia sentitzera heltzen dira, eta matxismoaren eraginez, emakume arrazializatu-en kontra deskargatzen dute hori.

Horregatik dio berebiziko garrantzia duela hezkuntzan urratsak egiteak, eta eskola jazarpenaren kontrako protokoloak dauden moduan, arrazakeriaren aurkakoak ere ezarri beharko lirатеkeela, horrelako kasuetan nola jokatu behar den definitzeko. Lan munduan eta politikan ere ezarri behar-

ko lirатеke marra batzuk, eta zeresanik ez, poliziaren jardunean, «zeren eta haren lana legea aplikatzea eta herria babestea bada eta ez badu hori egiten...». Gaineratu du Bitak, berez, ezin dela arrazakeriagatik salaketarik jarri, gorroto delitua dela kontzeptua, baina «ez da espezifikoa». Emakumeen aurkako sexu indarkeriarekin egin bezala, egoerak zehaztu eta tipifikatu beharko lirатеkeela uste du bilbotarrak. Edonola ere, bide luzea dago aurretik, eta horri ekiteko arrazakeriaren aurkako espazio berriak konkistatu behar direla dio Vorigi Bitak, «gure mezua helaraziz, eta batuz, antolatuz, zerbait egin, gazte migratzaileek eta ez-migratzaileek».



Nagore BARRENA ORUEECHEBARRIA

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria, UPV/EHU

Zaintzaren kapitalismoa

Sare sozialak, adimen artifiziala, datuen pribatutasuna, konpainia teknologiko handiak eta antzeko beste kontzeptu batzuk entzunda, gehiengoari, ziur asko, ondorengo izenak eta aurpegiak etorriko zaizkio burura: Musk, Bezos, Zuckeberg... **besteak beste.** Horiek *surveillance capitalism* (zaintzaren kapitalismoa) kontzeptuaren eredu garbiak dira. Shoshana Zuboff filosofoak aurkeztu zuen kontzeptu hori, *“The age of surveillance capitalism”* liburuan. ‘Zaintzaren kapitalismoa’ datu pertsonalen merkantilizazioari esaten zaio; alegia, informazio pertsonala irabazi-asmoko salerosketari lotutako merkantzia bihurtzean datza.

Bestalde, hain ospetsu ez den baina garrantzi handia duen figura bat ere nabarmentzen da teknologia ekosisteman. Figura horrek **guztion onerako den eta pribatutasunean zein garden-tasunean oinarritzen den teknologia-
ren erabilpenaren defentsan** lan egiten du. Bera Meredith Whittaker dugu.

Meredith Whittaker Google-ko langilea izan zen 13 urtez. Bertan, ingeniari-ritza taldeak zuzendu zituen eta *Open Research Group* taldearen sortzailea ere izan zen. Talde horrek sortzen ari ziren teknologien eragin sozialaren azterketa sustatzea zuen helburu. Ondoren, akademiara pasatu zen, eta AI Now Institute sortu eta zuzendu zuen NYU-n, adimen artifizialak gizartearen dituen eraginak aztertzeke helburuarekin.

Bereak dira ondorengo baieztapenak: «Pribatutasuna ez da luxua. Ezinbesteko baldintza da askatasunerako». Edo «zaintza da Interneteko negozio eredu. Eta aldatu egin behar

dugu». Horiek **adimen artifizialaren eta teknologia berrien erabilpen ego-
ki baten alde** egindako adierazpenak dira. **Datu pertsonalen merkantilizazioa ardatz duten eredu teknologiko-
en aurkako** mezuak dira. **Ez dira teknologiararen kontrako mezuak.**

Zaintza kapitalismoaren kontra ir-
mo egiten duen emakume hau Signal Foundation-eko zuzendari nagusia da 2022az geroztik. Signal pribatutasuna bermatzen duen eta irabazi asmorik gabeko mezularitza zifratuko plata-
forma da. Signal-en bitartez, mezuak bidali, deiak (eta bideo bidezko deiak) egin edo fitxategiak banatzeko aukera dago. Alegia, WhatsApp edo Telegram-en bezala.

Baina mezuak muturretik muturre-
ra zifratuta daude Signal-en, eta ho-
rrek bermatzen du igorleak eta har-
tzaileak bakarrik irakur ditzaketela

mezuak. Irabazi asmorik gabeko kon-
painia da, metadaturik gordetzen ez
duena, erabiltzailearen informazioa
biltzen ez duena eta kode irekikoa. Haren zuzendaritzapean, Signal-ek
sendotu egin du bere jarrera, aukera
etiko gisa, datu pertsonalekin nego-
zioa egiten duten mezularitza plata-
formen ondoan.

Esan beharra dago, paradoxikoki,
Signal-en pribatutasunaren politika-
ren arrakasta dela-eta, gaur egun
WhatsApp-ek ere muturretik mutu-
rretarako zifratua erabiltzen duela, eta
Signal-en kodea erabiltzen duela ho-
rretarako.

Bukatzeko, aipatu nahi nuke Mere-
dith-en lanak agerian uzten duela **adi-
men artifizialak eta teknologia be-
rriek guztion onurarako balio
dezaketela eta balio behar dutela,**
haien **benetako zentzura itzulita.**



‘Zaintzaren kapitalismoa’ datu pertsonalen merkantilizazioari esaten zaio. GETTY IMAGES

BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



PASCUAL MARIN. MARIN FUNTSA. KUTXATEKA.

CHARLES CHAPLIN ETA HARRY D'ABBADIE, TXOFREKO ZEZEN-PLAZAN

1931ko abuztuaren 8an, Pascual Marínek argazki bat egin zuen Donostiako Txofreko zezen-plazan. Irudian, bata bestearen aurrean, Charles Chaplin aktore eta zinema zuzendaria eta bere lagun Harry d'Abbadie d'Arrast, Ipar Euskal Herriko jatorria zuen zinema zuzendaria. Bertako prentsak haien bisita jaso zuen, Bretxako azokan egindako paseoa eta Rodil jatetxeko bazkaria barne, non txipiroiak dastatu zituzten, garaiko kronikek diotenez. Harry d'Abbadie d'Arrast zinemagi-leak lotura estua zuen Ipar Euskal Herriarekin. Bere aitona, Jean Charles d'Abbadie, Baigorriko Etxauzko gazteluaren jabea izan zen (gaur egun Harryren beraren gorpuzkiak Baigorri daude). Gainera, Antoine d'Abbadie euskaltzale, astronomo eta esploratzaile ospetsuaren eta Hendaiaiko Abbadie gaztelua eraiki zuenaren iloba zen. Aurten "The Gold Rush" Chaplinen maisulanetako baten estreinaldiaren mendeurrena da. Ekoizpen hartan, d'Abbadie d'Arrast zuzendariak bere biziko garrantzia izan zuen zuzendari laguntzaile gisa.

bidaiari

naiz: -en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde
berrietara
goaz



hurrengo
ostiralean
zure
kioskoan

1,50€

eta gainera...

BRUNEIKO SULTANERRIA
BORNEOKO TXOKO
AHAZTUA

MU'O'NG HOA
LABORARIEN TERRAZA
IKUSGARRIAK VIETNAMEN

NAFARROAKO KOLONOAK
ARBASORIK
GABEKO HERRIAK

BOISE
DIASPORA ETA
ASKOZ GEHIAGO

TURDA GATZ-MEATZEAK
HISTORIA ETA NATURA
TRANSILVANIAN

Elkarrizketa Iñaki Goikoetxea eta Maialen López bidaiariak **Egin planak** Basterretxea eta zementua, solaskide artistikoak;
Bargotako Sorgintzaren Astea; Erriberriko 26. Antzerki Jaialdia; Lauaxeta, gogoan **Munduan pasieran** Heliganeko lorategi galdua; udan Senan bainuak;
'Emakume izatea, antzinako Ponpeian'; Bradford, Kulturaren Hiria; La Boca: tangoa eta Bombonera; Sareak konpontzen Xiapun-en...

